

txanela

Irakaslearen gidaliburua
(zirriborroa)

6

**Gu sortu ginen enbor beretik
sortuko dira besteak...**

(Txanela - Material globalizatua,
Lehen Hezkuntza - 6. maila)

TXANELA 6: SEIGARREN UNITATE DIDAKTIKOAREN GIDA

“GU SORTU GINEN ENBOR BERETIK, SORTUKO DIRA BESTEAK...”

Unitatearen gaia eta haria: Inguruneari dagokionez, unitate honetan nagusiki lantzen diren gaiak hauek dira: *Bizidunak, zelula eta gizakien arteko harremanak.*

Bizidunen gaia jorratzeko, lehendik landuta zituzten bizidunei buruzko hainbat ezagutza (sailkapenak, funtzioak...) gogora ekarriko ditugu eta horietatik abiatuta, gaiari buruzko ezagutza berriak landuko ditugu, hain zuzen ere eta zehazki, bizidunen oinarritzko unitatea den zelulari buruzkoak, horretarako hainbat motatako informazioa irakurriz eta behaketa eta esperimendazio bideak etengabe irekiz.

Aipatu bigarren atala, hau da, zelulari dagokiona, da neurri handi batean berria den gai bakarra, curriculum ofizialak gai honetara hurbiltzea eskatzen baitigu. Denbora kontuak tarteko, zuek ikusi zenbaterainoko sakontasunarekin lan dezakezuen, DBHn berriz izango baitute aukera. Nolanahi ere, esperimenduak errazak direnez, animatu bat edo beste egitera.

Gizakien arteko harremanei dagokienez, gai honetan, bizitzaren zati naturala den heriotzaren gaiari (erritualak, dolua, sentimenduak...) ere tokia egin zaio, hori lantzeari sekuentzia oso bat eskainiz. Bestetik, ugalketa eta sexualitatearen gaiek ere garrantzia hartzen dute unitate honetan. Lehendik ikasitako hainbat gauza gogora ekarriko ditugu eta sexualitatearen hezkuntzan urrats bat harago joanez, sexu bidezko harremanetan transmititutako hainbat gaixotasunen berri eta horien aurrean prebentzioa sustatzeko informazioa luzatuko diegu. Ikasleek izan ditzaketan sexuari buruzko zalantza guztiak argitzeko, espazioa eta uneak ere izango ditugu.

Hizkuntzari dagokionez, berriz, unitate honetan ez dugu eduki berririk landuko, jarduera guztiak, lehendik ikasitakoak gogora ekartzeko eta ikasitakoa ebaluatzeko aukerak eskaintzeko eratuak izan dira.

Arte-hezkuntzari dagokionez, plastikan proiekturako (txikiei Txanela zer den aurkeztu) taldean mural bat egitea proposatzen dugu, eta baita emakumea eta artearen inguruko hausnarketa txiki bat ere.

Proiektua: Unitate honetako proiektua bikoitza izango da.

-**Txikiei Txanelaren aurkezpena egin**→ Etapa honetan egindakoari begiratuko diogu; proiektuak gogora ekarri, pertsonaiekin bizitako abenturak, irteerak... gogoratuz, ikasitakoari so eginaz... Informazio horretatik guztitik garrantzitsuena eta esanguratsuena aukeratuko dugu, erabakitako moduaren arabera txikiei aurkezteko.

-**DBHkoei elkarrizketa egin**→ DBHri buruz ikasleek izan ditzaketan zalantza guztiak argitzeko elkarrizketa prestatu eta gauzatuko dugu.

ZEHAR LERROAK, TREBETASUN SOZIALAK

Giza eskubideak, harremanak, bake hezkuntza.	Heriotza: Dolua eta sentimenduak Sexismoa edo genero diskriminazioa Sexualitatea Prebentzioa eta sexu harremanak
--	---

EUSKAL DIMENTSIOA

Hizkuntza eta literatura	Ipuina: “Hau ezin zait niri gertatu” , J. M. Olaizola <i>“Txiliku”</i> Olerkia: “Sabel honetatik” , J. A. Ormazabal Olerkia: “Gereziondoa” , Kirmen Uribe Bertsoa: “Aita izenak kanta beharrak” , X. Amuriza Abestia: “Memorian” , Bitoriano Gandiaga Ipuina: “Luko markesak itsasoko hegazti bat hazi nahi” Txilikuk moldatua Hainbat euskal idazleen txiste eta pasadizoak: Pello Esnal, J. A. Ormazabal, Anjel Lertxundi eta Imanol Zaldúa Bertsoak: “Eta orain oporrak! , ...eta festak!» , Mikel Mendizabal
Musika eta gorputz motrizitatea	“Agur Txanela” Joxean Ormazabal eta Imanol Urbietak Entzunaldia: “Nafarroa beherako martxa” Oskorri “Txoria txori” Joxean Artze Entzunaldia: “Memorian” Gontzal Mendibil “Mendian gora” Xabier Amuritzak “Topa dagigun»” Jon Sarasua, Oskorri

Sekuentzia tematikoa:

Ikasitakoa berrikusi: bizidunak

Ekosistemak

- Erika-katea

Bizi-funtzioak

- Nutrizio-funtzioa
- Erlazio-funtzioa
- Ugalketa-funtzioa

Heriotza

- Erritoak
- Sentipenak

Bizidunen sailkapenak

Bizidun zelulanitzak

- Zelulatik organismora

Animalien sailkapena

Landareen sailkapena

Zelula, bizidunaren oinarrizko unitatea

Zelula eta mikroskopioa

Mikroskopioaren erabilera

Organismo zelulabakarrak eta zelulanitzak

Zelula motak

- Egituraren arabera
- Elikatzeko eraren arabera

Zelularen egitura

- Esperimentuak eta behaketak: animalia- eta landare-zelulak, zelula erraldoia, bizidun zelulabakarrak...

Bizidun zelulabakarrak eta bizi-funtzioak

- Zelulabakarren nutrizio-funtzioa
- Zelulabakar heterotrofoen elikadura
- Zelulabakarren erlazio-funtzioa
- Zelulabakarren ugalketa

Onddo mikroskopikoak

- Esperimentuak eta behaketak: legamia, jogurta, lizunak...

Gizakion harremanak

Gizakion ugalketa eta sexualitatea

Gizakion sexu-organoak

- Gizonezkoen sexu-organoak
- Emakumezkoen sexu-organoak

Hilekoa eta menopausia

Ugalketa

Ugalketa artifiziala

Antisorgailuak

Prebentzioa eta sexu harremanak: sexu bidez transmititzen diren gaixotasunak

Sexismoa edo genero diskriminazioa

Ikas-ibilbidea:

- Lehen Hezkuntzan egindakoari gainbegiratu
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari buruzko oinarrizko informazioa

EDUKIAK

		HIZKUNTZA		INGURUNEA		
EDUKI BLOKEA	ARLOKO KONST.	KONTZEPTUAK	PROZEDURAK	PROZEDURAK	KONTZEPTUAK	JARRERAK
1. AHOZKO KOMUNIKAZIOA			<p>Talde-elkarrizketa: aurre-ezagutzetan oinarritutako elkarrizketa</p> <ul style="list-style-type: none"> -Gidoia (galdetegia) jarraituz aritza (10., 14., 16., 24., 40-45. or.) -Sintesia (idazkaria/bozeramailea) (40-45. or.) -Nork bere zalantzak eta kezkek adieraztea (40-45..or.) 		<p>Aurre-ezagutzak: ekosistemak (10. or.), bizi-funtzioak (10. or.)</p> <p>Heriotza: errito eta ohiturak (14.or.) Bizidunen sailkapenak (16.or.) Mikroskopiaoren erabilera (24.or.) Gizakion ugalketa eta sexualitatea; gizon eta emakumeen sexu-organoak; hilekoa eta monopausia; ugalketa; ugalketa artifiziala; antisorgailuak; sexu bidez transmititzen diren gaixotasunak (40-45. or.)</p>	<p>Parte-hartze aktiboa Elkarlana</p>
				<p>Sentimenduak adieraztea -Atsekabea, galera (15. or.)</p>	<p>Dolua (15. or.)</p>	<p>Lagunen bizipen eta egoera emozionalarekiko enpatia</p>
		<p>Ahozko azalpena: irakaslearen azalpena (12. or.), ikus-entzunezko erreportajea (14. or.), esperimentu baten azalpena (38. or.)</p>	<p>Ahozko azalpena: ulermen-estrategiak</p> <ul style="list-style-type: none"> - Entzuketa arretatsua <ul style="list-style-type: none"> ▪ Entzun-helburua finkatzea ▪ Oharrak-hartzea ▪ Informazio hautaketa 		<p>Erlazio-funtzioa (12. or.)</p> <p>Heriotza: errito eta ohiturak (14. or.)</p> <p>Legamiaren behaketa (esperimuntua) (38. or.)</p>	
		<p>Ahozko azalpena -Egitura: sarrera, garapena, amaiera</p>	<p>Ahozko azalpena: ekoizpena</p> <ul style="list-style-type: none"> -Planifikazioa (21.or.; 54-55.or.) <ul style="list-style-type: none"> ▪ Komunikazio-asmoa finkatzea ▪ Informazioa bilatzea, aukeratzea eta antolatzea ▪ Informazioa idaztea -Ahozko gauzatzea (21. or.; 29. or.; 54-55. or.) <ul style="list-style-type: none"> ▪ Azalpena egituratzea ▪ Jendaurreko azalpenerako estrategiak 		<p>Ekosistemak; bizitzaren funtzioak; nutrizio-, erlazio- eta ugalketa-funtzioak; animalien eta landareen sailkapena</p> <p>Landare-zelula (behaketa, esperimuntua) (29. or.)</p> <p>Txanelaren berri (LHn egindako ikas-ibilbidea) (54-55. or.)</p>	
		<p>Talde-elkarrizketa formala, eztabaida -Ezaugarriak</p>	<p>Talde-elkarrizketa formala, eztabaida (49. or.)</p> <ul style="list-style-type: none"> -Parte-hartzea prestatzea -Parte-hartzea: iritzia adieraztea eta arrazoitzea -Arauk jarraitzea -Egoki eta zuzen hitz egitea -Eginkizun ezberdinak betetzea: bozeramailea, moderatzailea 		<p>Sexismoa edo genero diskriminazioa</p>	<p>Parte-hartze aktiboa Errespetua</p>
				<p>Elkarrizketa (52-53.or.)</p> <ul style="list-style-type: none"> -Planifikazioa: komunikazio-helburua finkatzea; galderak hautatzea eta galdetegia prestatzea -Elkarrizketaren ahozko gauzatzea 		<p>DBHri buruzko oinarriko informazioa: liburuak, materialak, proiektuak, ikas-arloak, irakasleak, ordutegiak, lan egiteko modua</p>

		HIZKUNTZA		INGURUNEA			
EDUKI BLOKEA	ARLOKO KONST.	KONTZEPTUAK	PROZEDURAK	PROZEDURAK	KONTZEPTUAK	JARRERAK	
2. IDATZIZKO KOMUNIKAZIOA			Irakurtzeko teknikak -Gainbegiratua (10. or.) Hauta lanerako irakurketa -Helburuaren arabera informazioaren hautaketa (galdetegia) (10-11. or.; LK,5. sek.) -Testuan deskribatutako xehetasunak deskribatutako objektuarekin erlazionatzea (24. or.) -Datu (lexiko) zehatza hautatzea (24. or.)		Elikadura- edo nutrizio-funtzioa: elikadura autotrofoa eta heterotrofoa, elika-katea, fotosintesia (11. or.) Mikroskopia (24. or.) Organismo zelulabakarrak eta zelulanitzak; zelula motak; zelularen egitura (25-26. or.)		
		Komunikazio-helburua Testu-mota Gaia eta azpigaiak Idea nagusia: esplizitua, inplizitua Xehetasunak	Irakurketa erreflexiboa -Eduki orokorraren esanahiaz jabetzea (Irak. 155-158.or.; Irak. 172-173.or.) <ul style="list-style-type: none"> ▪ Komunikazio-helburua, testu-mota, gaia eta ideia nagusia identifikatzea (15.or.; Irak.159.165.or.) ▪ Gaia eta azpigaiak, ideia nagusiak eta xehetasunak bereiztea (22-23.or.) ▪ Irudien esanahia interpretatzea (28-29.or.) 		Izaki bizidunen ezaugarriak (Irak. 155-158.or.) Zelula, mikroskopia (22-23.or.) Sexu bidez transmititutako gaixotasunak (Irak. 172-173.or.)		
			Informazio grafikoa behatzea eta interpretatzea (13.or.; 18-19.or.)		Ugalketa-funtzioa (13.or.) Informazioa era grafikoan adierazteko teknikak: krokisak, krokis ohardunak, zoom teknika (13.or.); sailkapen eskema (18-19.or.)		
				Irakurketa adierazkorra (Irak. 168. eta 169.or.)			
		Hiztegi artikulua -Adierak -Laburdurak eta bestelako ikurrak	Hiztegiaren erabilera (16. or.) -Informazio bilaketarako estrategiak		Bizidun zelulanitza: zelula, ehuna, organoa, aparatua, organismoa (16. eta 17. or.)		
		Azalpen-testua -Egitura: definizioa eta garapena	Azalpen-testua: idatzizko ekoizpena (21. or.) -Planifikazioa: komunikazio-asmoa finkatzea; gaia hautatzea; informazioa kontsultatu, bildu, hautatu eta antolatzea (eskema) -Testualizazioa: zirriborroa idaztea -Berrikusketa: arauen aplikazioa; paragrafoen antolaketa, zuzenketa ortografikoa, hiztegiaren erabilera		Ekosistemak; bizitzaren funtzioak; nutrizio-, erlazio- eta ugalketa-funtzioak; animalien eta landareen sailkapena		
		Informazio-iturriak: internet -Bilatzailea -Giltza-hitza	Informazio-bilaketarako estrategiak (26. or.) -Irudien bilaketa		Zelula		

		Txosten zientifikoa		Esperimentuak eta behaketak burutzea -Irakurketa/entzuketara arretatsua -Irudien interpretazioa -Behaketak egin eta oharrak hartzea -Ondorioak ateratzea (galdetegia) -Ahozko azalpena (29. or.) -Txosten zientifikoa osatzea (38. or.)	Animalia- eta landare-zelulak (27-30. or.); zelula erraldoia (31. or.); bizidun zelulabakarrak (31. or.); onddo mikroskopikoak (legamia, jogurta eta lizunak) (38. or.)	Ekimena Elkarlana
			Informazioaren sintesia: eskema (32-36. or.) -Informazio nagusia (gai orokorra, azpigiak, oinarriko kontzeptu eta ideiak, ideia nagusiak, xehetasun garrantzitsuak) aurkitzea -Informazio nagusia laburki adierazteko gako-hitzak hautatzea -Informazioa eskeman antolatzea -Informazioa grafikoki adieraztea		Bizidun zelulabakarrak: nutrizio-funtzioa; heterotrofoen elikadura; erlazio-funtzioa; ugalketa (32-36. or.)	
		Testu-mota, ipuina -Protagonista, arazoa, gertaerak, amaiera -Irakur-asmoa -Laburpena	Irakurritakoa ulertzeko estrategiak (46-47. or.; LK, 6. sek.) -Gainbegiratu: hipotesiak -Isileko irakurketa -Irakurritakoa oroitzea, esanahia interpretatzea -Laburpena: ipuinen laburpena -Irakurketa kritikoa			
		Ipuina -Elementuak eta egitura	Ipuinen idazketa (48. or.) -Planifikazioa: komunikazio-asmoa eta gaia hautatzea; ideiak sortzea; gidoia osatzea -Testualizazioa: zirriborroa idaztea -Berrikusketa: landutako hizkuntza edukien erabilera zuzena; zuzenketa ortografikoa -Edizioa			
					Artea (50-51. or.) -Emakumea eta artea -Murala	
		Eskutitza -Elementuak eta egitura	Eskutitzen idazketa (53. or.) -Planifikazioa: komunikazio-helburua eta eduki nagusia finkatzea -Testualizazioa: zirriborroa idaztea -Berrikusketa -Edizioa		DBHri buruzko oinarriko informazioa	

HIZKUNTZA				INGURUNEA		JARRERAK
EDUKI BLOKEA	ARLOKO KONST.	KONTZEPTUAK	PROZEDURAK	PROZEDURAK	KONTZEPTUAK	
3. HIZKUNTZARI BURUZKO HAUSNARKETA			Zuzenketa ortografikoa -Arauk aplikatzea (LK, 37. or.; LK, 51. or.) -Hiztegiaren erabilera (LK, 37. or.; LK, 51. or.)			
		Hitz-motak -Aditza <ul style="list-style-type: none"> ▪ Aditz forma (LK, 38. or.) ▪ Aditz laguntzailea (LK, 38. or.) ▪ Aditz pertsona (LK, 52. or.) ▪ Aditz denbora (LK, 52. or.) NORK, NOR eta NORI sintagmak (LK, 38. or.) Deklinabidea -Deklinabide atzikia (LK, 39. or.; LK, 54. or.) -Deklinabide kasua (LK, 39. or.; LK, 54. or.) Hitzen osaera -Hitz eratorriak, hitz elkartuak (LK, 42. or.) -Hitz erroa, atzikia (LK, 42. or.) Subjektua eta predikua (LK, 53. or.)	Esaldiaren testuinguruan, landutako hizkuntz elementuak identifikatzea eta forma egokia hautatzea			
		Esaldi-motak -Erlatibozkoak (LK, 40. or.) -Kausazkoak (LK, 40. or.) Kausa-ondorio erlazioa (LK, 40. or.) -Kausa -Ondorioa Narrazioaren pertsona eta denbora (LK, 53. or.)	Emandako irizpideen arabera, esaldiak eraldatzea edo/eta osatzea			
		Kohesio-elementuak -Testu-antolatzaileak (LK, 41. or.) -Puntuazio markak (LK, 41. or.) -Hitzak ez errepikatzeko baliabideak: erakusleak, toki adberbioak, sinonimoak (LK, 56. or.)	Landutako kohesio-elementuak egoki erabiltzea paragrafo eta testuetan			

	C, A2, B2	Erdarakadak eta beste zenbait erabilera oker : aditz pertsonen nahasketa, aditzaren kokapena, baldintzazko formak, aditzaren aspektua	Erabilera arauen ondorioztatzea edo/eta aplikazioa (LK, 52. or.)			Esfortzua
	C, B2	Pertsonaien hitzen aipamena narrazioetan -Elkarrizketa marra edo marra luzea, bi puntuak, kakotxak	Araua aplikatzea (LK, 55. or.)			Autonomia

HIZKUNTZA				INGURUNEA		JARRERAK
EDUKI BLOKEA	ARLOKO KONST.	KONTZEPTUAK	PROZEDURAK	PROZEDURAK	KONTZEPTUAK	
4. HIZKUNTZAREN GIZARTE DIMENTSIOA		Eleaniztasuna (52-53. or.) Hizkuntzen trataera irakaskuntzan (52-53. or.)	Informazio iturriak -Galdeketa zuzena		DBHri buruzko oinarrizko informazioa	

HIZKUNTZA				INGURUNEA		JARRERAK
EDUKI BLOKEA	ARLOKO KONST.	KONTZEPTUAK	PROZEDURAK	PROZEDURAK	KONTZEPTUAK	
5. LITERATURA	A2	Oporretarako liburuak (60. or.)	Atseginerako irakurketa			Irakurzaletasuna
	B1		Txiste eta pasadizoen kontaketa (48. or.) -Ahotsaren eta gorputzaren baliabide adierazkorak erabiltzea			
	A2	Abestia	Irakurketa erreflexiboa (60. or.) -Gaia, komunikazio-asmoa, testu-mota identifikatzea -Testuko edukia norbere bizipen, ideia eta aurrezagutzeekin lotzea		Txanelaren berri (LHn egindako ikas-ibilbidea)	
	A1	Bertsolaritza -Agurreko bertsoak -Neurri handia eta txikia	Irakurketa arretatsua (60. or.; Irak. 184-185. or.) -Eduki orokorraren esanahiaz jabetzea Abestia			

EBALUAZIOARI BURUZKO HAINBAT OHAR

ETAPA AMAIERAKO HIZKUNTZAKO HELBURUEN LABURPENA

Oharra: Ondorengo informazioa hizkuntza arloari dagozkion helburu eta ebaluatzeko irizpideei dagokiona da. Helburu horiek ebaluatzeko unitatean aurkituko dituzuen jardueren berri laburra eskaintzen da bertan, behar edo komeni direnak hautatzeko lagungarria.

Etapa amaierako hizkuntzako helburuak bi irizpideren arabera sailkatu dira:

- **Gaitasun nagusiekin** erlazionatuz:
 - A. Ulermena
 - A1. Entzutezko ulermena
 - A2. Irakurmena
 - B. Adierazpena
 - B1. Ahozko adierazpena
 - B2. Idatzizko adierazpena
 - C. Hizkuntzari buruzko hausnarketa
- **Eduki multzoekin** erlazionatuz:
 - Ahozko komunikazioa
 - Komunikazio idatzia
 - Hizkuntzari buruzko hausnarketa
 - Hizkuntzaren gizarte dimentsioa
 - Literatura

ETAPA AMAIERAKO HIZKUNTZAKO HELBURUAK ETA EBALUAZIO IRIZPIDEAK	JARDUERAK 6. MAILA, 6. UNITATEA
---	--

AHOZKO KOMUNIKAZIOA

Ahozko azalpenen ulermena (A1)

<p>1. Ahozko azalpenen funtsezko ideiak identifikatzea</p> <p>1.1. Aktiboki entzuteko jarrera (hitz gabeko erantzunak, galderak...)</p> <p>1.2. Ideia nagusiak, xehetasunak bereizi</p> <p>1.3. Ulermen orokorrerako oinarrizko elementuen esanahia interpretatu (lexikoa, lokuzioak, antolatzaileak, joskera, baliabide erretorikoak)</p> <p>1.4. Gaia, komunikazio asmoa identifikatu</p> <p>1.5. Ideia nagusiak gogoratu, ahoz eta idatziz adierazi (sintesi prozedurak: eskema, laburpena...)</p> <p>2. Ahozko testuetan informazioak aukeratzea</p> <p>2.1. Datu zehatzak identifikatu (taulak-grafikoak osatzeko, galderei erantzuteko...)</p> <p>2.2. Oharrak hartu (emandako tresna eta jarraibideen bitartez)</p> <p>2.3. Informazioa erabili (taulak-grafikoak osatu, galderak erantzun...)</p>	<p>9. jarduera</p> <p>Irakaslearen azalpenen ulermena: aurrez ezaguna den gai bati buruzko azalpen osoa (ulermen orokorra)</p> <p>11. jarduera</p> <p>Ikus-entzunezko erreportaje baten (DVD) ulermena (ulermen zehatza)</p> <p>35. jarduera</p> <p>Irakaslearen azalpenen ulermena: esperimendu baten azalpena entzun, informazio nagusia jaso, ekin</p>
--	--

Talde-elkarrizketak, elkarrizketa formalak, eztabaidak (A1-B1)

<p>3. Elkarrizketa eta eztabaidetan, ideiak azaltzea, arrazoitzea eta besteenekin alderatzea</p> <p>3.1. Elkarlanean aritu, talde lanetako erantzukizunak hartu</p> <p>3.2. Berez parte hartu, ekarpenak egin</p> <p>3.3. Jarduna gaiari eta elkarrizketaren uneari egokitu</p> <p>3.4. Ikuspegi pertsonala azaldu, arrazoitu</p> <p>3.5. Esandakoari buruzko galderak erantzun (azalpen zehatzagoa, informazio gehiago...)</p> <p>3.6. Galdera eta iruzkin egokiak egin</p> <p>3.7. Hitzekoak ez diren baliabideen esanahia ulertu, inplizituak ondorioztatu (hiztunaren jarrera, umorea, ironia, zentzu bikoitza...)</p> <p>3.8. Ideiak argi eta erraz adierazi, erregistro eta elementu prosodikoak eta keinuzkoak egoki erabili</p> <p>3.9. Arau sozio-komunikatiboak aplikatu</p> <p>4. Eguneroko bizitzako egoera desberdinetan elkarrizketan aritzea</p> <p>4.1. Argitasuna (ahoskera zuzena, ulergarria), jariotasuna (erraztasuna, bapatekotasuna), eraginkortasuna (adierazi nahi dena adierazi)</p> <p>4.2. Hitz eta esamolde egokiak</p> <p>4.3. Hizkuntzaren berezko hitz eta esamoldeak erabili, kalko okerrak baztertu</p> <p>4.4. Bereizkeria adierazten duten hitz eta esamoldeak baztertu</p>	<p>44. jarduera</p> <p>Generoen arteko eskubide berdintasunari buruzko talde-elkarrizketa (Hitz-errota).</p> <p>OHARRA</p> <p>Helburu hauen ebaluaketarako 6.5 unitatean egindako lana eta behaketak balia daitezke. Behaketa horiek osatu nahi izanez gero, goian deskribatutako jardueraz gain, unitatean zehar proposatzen diren elkarrizketa egoerak balia daitezke.</p>
---	--

Ahozko azalpenen ekoizpena (B1)

<p>5. Ahozko aurkezpen argi eta egituratuak egitea</p> <p>5.1. Ikaskuntza eremuko informazio iturriak erabili</p> <p>5.2. Informazio egokia (kalitatea, kantitatea, edukia) hautatu</p> <p>5.3. Informazioa egituratu</p> <p>5.4. Diskurtso-antolatzaile egokiak erabili</p> <p>5.5. Diskurtsoa ulergarri egiteko, arretari eusteko estrategiak erabili: errepikapena, enfasia, birformulazioa, galdera erretorikoak, euskarriak...</p> <p>5.6. Ideiak argi, zuzen eta jariotasunez adierazi, baliabide prosodikoak eta keinuzkoak erabili</p> <p>5.7. Autonomia planifikazio eta burutze prozesuan</p>	<p>20. jarduera</p> <p>Ahozko azalpena planifikatu eta egin</p> <p>28. jarduera</p> <p>Egindako esperimenduan oinarritutako ahozko azalpena</p>
---	---

IDATZIZKO KOMUNIKAZIOA

Irakurketa: eraginkortasuna, abiadura, irakurketa adierazkorra (A2)

6. Hizkuntza idatziaren oinarriko unitateak deskodetzea
- 6.1. **Eraginkortasunez eta abiadura** egokiz irakurri
- 6.2. **Irakurketa adierazkorra** egin, argi, zuzen eta jariatasunez

18. jarduera
Jendaurreko irakurketa adierazkorra

39. jarduera
Irakurketa isila

Irakurmena: orokorra eta zehatza (A2)

7. Testu idatzi sinpleen **esanahi globala inferitzea**
- 7.1. **Gaia, komunikazio asmoa eta testuaren erabilpen orokorra** inferitu
- 7.2. **Testu generoa** bereizi, **oinarrizko ezaugarriak** identifikatu
- 7.3. Ulermen orokorrerako **oinarrizko hizkuntza elementuen esanahia** interpretatu (lexikoa, lokuzioak, baliabide erretorikoak)
- 7.4. **Hitzekoak ez diren elementuak eta testu-ezaugarriak** (irudiak, tipografia, espazioaren banaketa...) interpretatu
- 7.5. **Bereizkeriaren** bat adierazten duten irudi eta esamoldeak identifikatu
- 7.6. Testua zertan datzan esan, **ideia nagusiak** identifikatu
- 7.7. Edukiari eta formari buruzko **iritzia azaldu, arrazoitu**

2. jarduera
Ulermen orokorra: "Komikia"

8. jarduera
Ulermen orokorra: gainbegiratu

10. jarduera
Irudien (infogramak, krokisak...) interpretazioa

8. **Informazio garrantzitsua aurkitzea eta aukeratzea**
- 8.1. Galderen edo jarraibideen araberako **informazioa aurkitu**
- 8.2. Helburuaren araberako **informazio garrantzitsua eta zehatza aukeratu**, testu batean edo batzuetan
- 8.3. **Informazio iturri** egokienak erabili (hiztegiak, entziklopediak, Internet, liburutegia...)

13. jarduera
Irakurritakoaren ulermena (ulermen orokorra): testuen eduki nagusia eta generoa

16. jarduera
Informazio iturrien erabilera (hiztegia, hiztegi entziklopedikoa...)

25. jarduera
Ulermen zehatza

38-39. jarduerak
Ulermen estrategia orokorrak: irakurri aurretikoak eta ondorengoak

Sintesia (A2-B2)

9. Testu idatzi sinpleen **esanahi globala sintetizatzea**
- 9.1. **Ideia nagusiak adierazten dituzten hitzak** identifikatu, azpimarratu
- 9.2. **Ideia nagusiak idatziz adierazi, ideia inplizitoak** sintaxi eta lexiko egokiarekin **birformulatu**
- 9.3. Hautatutako **ideiak laburpen batean integratu**, koherentzia, kohesioa eta zuzentasunarekin
- 9.4. **Eskema eta kontzeptu-mapa sinpleak** egin, era gidatuan

23. jarduera
Azalpen-testu baten sintesia: ideia nagusiak

32. jarduera
Eskema

40. jarduera
Testu baten laburpena eta iritzi pertsonala: ipuina

Idatziko testuen ekoizpena (B2)

10. Testu idatziak planifikatzea

- 10.1. **Informazio iturriak** eraginkortasunez erabili, **ideiak sortu**
- 10.2. **Informazio eta ideia egokiak aukeratu**
- 10.3. Literatur testuetarako ideiak sortzerakoan **kreatibitatea** erakutsi
- 10.4. Testu generoaren **egitura eta funtsezko elementuekin eskema** egin
- 10.5. Planifikaziorako emandako **urrats eta oharrak jarraitu**
- 10.6. **Elkarlanean modu aktiboan aritu**

11. Testu idatziak sortzea

- 11.1. **Eduki egokiak, behar adinakoak** adierazi
- 11.2. **Hizkuntza elementu egokiak** erabili
- 11.3. Literatur testuetan, **ereduetako hainbat adierazpen baliabide** erabili (prozedura erretoriko eta estilistikoak)
- 11.4. **Aurkezpen** egoki eta zuzena: kaligrafia, marjinak, idazpuruak, irakurgarritasuna...
- 11.5. **Testu generoari dagozkion atal konbentzionalak** jaso
- 11.6. **Edukia** logikoki ordenatutako **paragrafoetan antolatu**
- 11.7. **Kohesio elementu egokiak** erabili
- 11.8. **Zuzentasun-maila** onargarria erakutsi
- 11.9. **Aberastasuna eta estilo pertsonala** erakutsi (lexikoa, esamoldeak, sintaxia...)
- 11.10. Testua **berrikusteko eta hobetzeko autonomia** erakutsi
- 11.11. **Elkarlanean modu aktiboan aritu**

20. jarduera

Azalpen-testu baten ekoizpena

42. jarduera

Narrazioa: bizipen batean oinarritutako ipuina

46. jarduera

Eskutitza: DBHkoei elkarrizketa baterako hitzordu eskaria

HIZKUNTZARI BURUZKO HAUSNARKETA

Hizkuntza elementuen ezagutza (C)

12. Hizkuntza elementuen ezaugarri eta funtzionamenduari buruzko oinarritzko ezagutzak erabiltzea

- 12.1. Landutako **hizkuntza elementuak identifikatu**
- 12.2. Testuak edo enuntziatuak hizkuntza elementu egokiak hautatuz **osatu**
- 12.3. Testuak edo enuntziatuak **eraldatu** emandako irizpideekin
- 12.4. Oinarritzko **akatsak identifikatu**
- 12.5. **Kalko oker** ohikoenak hauteman
- 12.6. **Ezagerak** autonomia-maila onargarriarekin **aplikatu** testu ekoizpenean

21. jarduera

Ekoiztutako azalpen-testuaren berrikusketarekin erlazioanatura, ariketa batera

22. jarduera

Lexikoa: hitzen osaera (eratorriak, elkartuak, deklinabidea, atzizkiak)

43. jarduera

Ekoiztutako ipuinaren berrikusketarekin erlazioanatura, ariketa batera

HIZKUNTZAREN GIZARTE DIMENTSIOA

Hizkuntza errealitatea (C-B)

13. Inguruko hizkuntza errealitatearen ezaugarri nagusi batzuek ohartzea

- 13.1. **Euskal Herrian** hedatuena dauden **hizkuntzak identifikatu**
- 13.2. **Egoera soziolinguistiko jakinak deskribatu** eta komentatu (iritzia adierazi, errespetua, aurriritziak baztertu)
- 13.3. Euskararen **oinarritzko aldaerak identifikatu**, balio komunikatiboa aitortu

14. Euskara ohiko komunikazio eremu eta egoeretan erabiltzea

- 14.1. **Euskarari lehentasuna** eman
- 14.2. **Aktiboki parte hartu** erabilera, normalizazioa eta transmisioa helburu duten jardueretan

46. jarduera

Hainbat kontzeptu

LITERATURA

Ahozko literatura (A1-A2-B1)

15. Ahozko literaturako **hainbat testu** ezagutzea eta erabiltzea
- 15.1. Testu liriko eta dramatikoak **buruz ikasi, errezitatu** (jariotasuna, adierazkortasuna)
 - 15.2. Narrazio testuak **kontatu** (jariotasuna, adierazkortasuna)
 - 15.3. **Kultur ondareko testu** laburrak (esamolde, esaldi, atsotitz...) **interpretatu, erabili**

41. jarduera

Txiste eta pasadizoen kontaketa

49. jarduera

Kantak gogora ekarri, errezitatu, abestu

51. jarduera

Agurreko bertsoak

Irakurzaletasuna (A1-A2)

16. Literatura atseginerako **iturri modura** erabiltzea
- 16.1. **Elkarrizketetan aktiboki parte hartu**, bizipenak eta ikuspuntuak azaldu
 - 16.2. Irakurritakoari buruzko **iritzi pertsonala** azaldu, justifikatu (ahoz, idatziz)
 - 16.3. **Irakurtzeko** ohitura eduki

50. jarduera

Oporretarako liburuak: irakur ohituren eta gustuen inguruko elkarrizketa

IKT jarduerak

Duela zenbait urte hasita, Ikastolen Elkarteak hezkuntza eremuko I+G+B egitasmoak eta proiektuak garatzen ari da. IKT (Informazio eta Komunikazio Teknologia) alorrean hainbat urtetako eskarmentua metatua du, euskarazko eta euskal kulturaren ardaztutako software kurrikularra eta aisialdikoa ekoiztean aitzindaria izanez. Horren lekuko dira, besteak beste:

- **IKASYS** Ikastolen Elkarteak garatutako hezkuntza alorreko proiektu berritzailea. IKASYS proiektuak konpetentzien garapenerako beharrezkoak diren baliabideen sistematizazioa du helburu nagusia; horretarako, trebakuntzan, memorizazioan eta ulermenaren garapenean oinarritutako tipologia askotariko jarduera sorta handia eskaintzen du.
- **Txanela webgunea** (www.txanela.net). Lehen Hezkuntzarako IKT konpetentziak hainbat konstanteren inguruan lantzeko eta garatzeko bidea aurkituko da Txanela webgunean. Lehen Hezkuntzako irakasleei zuzendurik, arloz arloko eta mailaz mailako jarduerak aurkezten dira. Oraingoz, “Txanela Globalizatua” deritzan arlo multzoan (Euskara- Ingurumena-Plastika) txertatu dira IKT jarduerak.
- **Ostadar webgunea** (www.ostadar.net). Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasleei eta ikasleei zuzendurik, arloz arloko eta mailaz mailako jarduerak aurkezten dira han. Irakasleari, gida didaktikoa jardueraz jarduera zehaztuta eskaintzeaz gain, IKT jarduerak egiteko eta gidatzeko zehaztapen guztiak ematen zaizkio. Ikasleari, IKT jarduerak proposatzeaz gain, haiek egiteko behar dituen baliabideak ematen zaizkio. Oraingoz, Ostadar proiektuko hiru arloetan txertatu dira IKT jarduerak: Naturaren Zientziak, Gizarte Zientziak eta Euskara eta Literatura.

* * * * *

Virtusbooks plataforma

IKASELKAR argitaletxeak (Ikastolen Elkarteak eta Elkar argitaletxeak sortua) 2011-2012 ikasturteik aurrera beste aukera bat eskainiko du. Beste baliabide bat eskaintzen da teknologia berrien eta IKT jardueren arloan. **Virtusbooks** (<http://www.virtusbooks.com/>) plataformaren bidez zoom-liburua eskaintzen zaie irakasleei eta ikasleei, ohiko ikasliburuen osagarri. Zoom-liburu horretan hainbat baliabide txertatu dira: bideoak, audioak, fitxategiak, estekak... Txanela webgunean eta Ostadar webgunean dauden hainbat IKT-jarduera ere gehitu zaizkio. Horrela, irakasleak gune berean izango ditu Txanela proiektuak (Ostadar proiektuak) dituen baliabide guztiak, hainbat proiektagailu, erreproduzitzailerik, etab. erabili beharrik gabe.

Hurrengo orrialdean agertzen den taularen bidez irakasleak jakingo du zein jardueratan izango duen baliabide digitaletara jotzeko aukera. Bestalde, irakasleak berak ere erantsi ahal izango ditu baliabideak, gero ikasleek arbel digitalean edo bakoitzaren ordenagailuan ikus ditzaten.






TXANELA 6

IKASLEAREN LIBURUA - 6. UNITATE DIDAKTIKOA

BALIABIDEAK

Liburu digitalaren eta gidaliburuaren arteko lotura

GIDALIBURUKO JARDUERA	BALIABIDE MOTA	EDUKIA	TXANELAKO ORRIALDEA	LIBURU DIGITALEKO ORRIALDEA
0		Baliabideen taula	3	289
2		Parte-hartzea	6	292
4		<i>Nafarroa Beherako martxa</i>	7	293
7		Bizidunak	10	296
11		Heriotza eta errituak	14	300
11		Heriotza eta errituak	14	300
13		Bertso doinuak	15	301
14		Ertzunaldia: Gontzal Mendibil (<i>Memorian</i>)	15	301
14		<i>Mendian gora</i>	15	301
16		Zelulatik organismora	17	303
17		Animalien sailkapena	18	304
26		Esperimentuak	27	313
37		Hitz gurutzatuak	39	325
41		Txistekak	48	334

42		Ipuina idatzi eta Gelako Blogan eskuragarri	48	334
47		Haur Hezkuntzakoei "Txanela" erakusten	54	340
49		Bertsoz	58	344
49		<i>Topa dagigun</i>	58	344
49		<i>Agur, Txanela</i>	58	344

JARDUEREN ANALISIA

1. Azalari behatzea eta elkarrizketa

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Unitate didaktikoaren azala

Ohi bezala, aurreikuspen-estrategiak landu eta ikasleak motibatzeke asmoz, liburuaren azalari behatzea eta elkarrizketa bultzatuko ditugu. Elkarrizketa bideratzeko, Tough-en hizkuntz funtzioetan oinarrituko gara, elementuak izendatuz, euren artean erlazionatuz, esandakoa arrazonatuz eta iragartzeari bidea emanez. Elkarrizketa honek, hizkuntzako 3. eta 4. helburuei dagozkien hainbat irizpide behatzeko aukera ematen digu (*Elkarrizketan aritzea eta norberaren ideiak azaltzea, arrazoitzea eta besteenekin alderatzea*).

Hasteko izenburuari erreparatuko diogu:

- *Zer adierazi nahi du “Gu sortu ginen enbor beretik, sortuko dira besteak... izenburuak?*
- *Ezagutzen al dituzu azalean agertzen diren pertsonaiak? Nor dira? Zer harreman mota dago euren artean? Justifika ezazu zure erantzuna.*
- *Ba al dago erlazorik irudien eta izenburuaren artean? Zein?*
- *Zeri buruzkoa uste duzu izango dela unitate hau? Zein izango ote da landuko duzuen proiektua?*

Elkarrizketa bukatzean, ikasleek euren izena idatziko dute unitatearen hirugarren orrialdean.

Oharra: Elkarrizketa eta eztabaida egoerekin lotura duten helburuak ebaluatzeko aukera izan da 6.5 unitatean. Hala ere, ebaluaketa hori osatzeko hainbat aukera aurki daiteke azken unitate honetan. 44. jarduerako hitz-errotaz gain, beste hainbat elkarrizketa egoera egongo dira. Ebaluazio irizpideen behaketa eta datu bilketa errazteko (ikasle guztien jardunari erreparatzeko, ikasle guztiak zeregin ezberdinetan jartzeko...), lagungarria litzateke talde finakoak osatzea eta txandakatuz ikasle guztiak bozeramaile lanetan jartzea. Horrela, irakasleak hainbat aukera izango du talde txikian ematen den interakzioa behatzeko eta baita ikasle bakoitzak bozeramaile lanetan egindako ahozko adierazpena behatzeko ere.

Ondorengo orrialdean, dagoeneko ezaguna duzuen, elkarrizketa eta eztabaida jardueretan solaskideen parte-hartzea behatzeko fitxa duzue. Fotokopia ezazue eta has zaitezte ikasleen datuak jasotzen horretarako egokiak diren jarduerak landu ahala.

TALDE ELKARRIZKETAK
(ELKARRIZKETA FORMALA, EZTABAIDA)
SOLASKIDEEN PARTEHARTZEA BEHATU ETA BALORATZEKO FITXA

BEHATUTAKO IKASLEA:			
Parte-hartzea prestatu du?			
	BAI	EZ	OHARRAK:
■Gaiari buruzko informazioa lortu du.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
■Iturri bat baino gehiagotatik lortu du informazioa	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
■Lortutako informazioa gogoratzeko idatziz ekarri du.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
■Bere iritziak idatziz prestatzen ditu.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
BALORAZIOA: <input type="checkbox"/> oso ondo/asko <input type="checkbox"/> nahikoa <input type="checkbox"/> eskas antzean <input type="checkbox"/> gaizki/gutxi			
Oharrak:			
Parte hartu du?			
	BAI	EZ	OHARRAK:
■Besteen hitzak arretaz entzun ditu.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
■Lortu duen informazioa azaldu du, hori egitea tokatzen zenean.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
■Bere iritzia azaldu du, hori egitea tokatzen zenean.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
■Aurrez beste batek esandakoari buruzko bere desadostasuna edo adostasuna azaldu du.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
■Iritziak arrazoitu edo justifikatu ditu.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
■Moderatzaileak behartu edo eskatu dionean bakarrik hitz egin du.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
■Berak horrela nahi zuelako, bitan baino gehiagotan hartu du hitza.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
■Beste norbaitek esandakoari buruzko argibide gehiago eskatu ditu.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
BALORAZIOA: <input type="checkbox"/> oso ondo/asko <input type="checkbox"/> nahikoa <input type="checkbox"/> eskas antzean <input type="checkbox"/> gaizki/gutxi			
Oharrak:			
Elkarrizketarako arauak bete ditu?			
	BAI	EZ	OHARRAK:
■Besteei hitz egiten utzi die, hizketa-txanda eten edo oztopatu gabe.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
■Hitza modu egokian eskatu dio moderatzaileari (eskua altxatuz edo beste keinu batez, baina besteen hizketaldia oztopatu gabe eta arreta galdu gabe).	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
■Moderatzailearen baimenarekin bakarrik hitz egin du.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
■Besteek esandakoak (ideiak, iritziak...) errespetatu ditu.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
■Besteen adierazpidea (hitz egiteko modua, keinuak...) errespetatu du.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
BALORAZIOA: <input type="checkbox"/> oso ondo/asko <input type="checkbox"/> nahikoa <input type="checkbox"/> eskas antzean <input type="checkbox"/> gaizki/gutxi			
Oharrak:			
Egoki hitz egin du?			
	BAI	EZ	OHARRAK:
■Gaiarekin zerikusia duten informazioak eta iritziak bakarrik azaldu ditu.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
■Informazioak eta iritziak modu ulergarrian adierazi ditu.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
■Besteek ondo entzuteko moduan, eta argi eta garbi ahoskatuz hitz egin du.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
■Hizkuntza zuzen erabiltzen ahalegindu da eta hitz egiterakoan egindako akats batzuk zuzendu ditu.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
■Esan duen zerbait ez dela ondo ulertu iruditu bazaio, saiatu da beste era batera adierazten.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
■Keinu, postura eta mugimendu egokiak erabili ditu.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
BALORAZIOA: <input type="checkbox"/> oso ondo/asko <input type="checkbox"/> nahikoa <input type="checkbox"/> eskas antzean <input type="checkbox"/> gaizki/gutxi			
Oharrak:			

2. Komikia eta aurre-ezagutzak

Lan egiteko era: Bakarka/Talde txikian/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 4., 5. eta 6. or.

Ebaluazioa:

• *Hizkuntza*

- <i>Gaitasun nagusia</i>	<i>Irakurmena</i>
- <i>Helburuak eta irizpideak</i>	<i>7 (7.1, 7.3, 7.4, 7.5, 7.7)</i>

Komikiaren bitartez unitateari sarrera eman eta gaien kokatuko gara, batetik, eta bestetik, era horretako testuen ulermen gaitasuna neurtuko dugu. Horretaz gain, komikiak ematen dituen hizpideak aprobetxatuz, ikasleek hizkuntza erabiltzeko duten erraztasuna, aberastasuna eta zuzentasunari behatzeko aukera ere izango dugu.

Hasteko, tartetxo bat emango diegu ikasleei komikia bakarka irakur dezaten. Adieraz iezaiezue, beti bezala, komikian, hitza bezain adierazgarria izan daitekeela irudian bertan ager daitekeen edozein xehetasun, beraz eman iezaiezue behar beste denbora komikia sakonki irakur eta beha diezaioten.

Testu idatzien ulermen orokorrari dagozkion irizpide batzuk behatzeko komikiaren bakarkako irakurketaren ondoren, hor beheko galdera sorta, orri batean jarri eta ikasle bakoitzak idatziz erantzutea proposatzen dizuegu.

Izena: Data:

KOMIKIA: "Badoa... badator!"

1. Adieraz ezazu hurrengo esaldietatik zeintzuk azaltzen duten komikian gertatzen dena eta zeintzuk ez.

- a. BAI/EZ Andereñoak ikasturteko azken proiektuaren berri eman die Intza, Jon eta gainerako taldekideei.
- b. BAI/EZ Datorren ikasturtean LHko 1. maila egingo duten hurrei aurkezpen bat egin beharko diete 6. maila bukatzen ari direnek.
- c. BAI/EZ Udaberriaren eraginez erdi gaixorik dabilta taldekide gehienak.
- d. BAI/EZ Jolas-ordu garaian Intza otartekoa erostera joan da.
- e. BAI/EZ Ikasturte amaierako jaialdian nola mozorrotu erabaki ezinik dabilta.
- f. BAI/EZ Uxue maiteminduta dago, baina ez daki nola adierazi bere sentimenduak.
- g. BAI/EZ Azken urteotako argazkiei begiratzea erabaki dute LHn egin eta bizitakoak gogora ekartzeko.
- h. BAI/EZ Jonek bere arrebatxoa jaiotza jakin du.

2. Ondoko hiru esaldietatik, zeinek adierazten du ondoen komikiaren eduki nagusia?

- a. Lagun taldea argazki zaharrak ikusteko elkartu da.
- b. Prestatu beharreko proiektu berria ezagutu eta LHn egindakoak gogoratzen hasi da lagun taldea.
- c. Jonek arreba berri bat izan du.

3. Ondoko hitzenartetik, zeinek adierazten du komikiaren gaia?

- a. LHko bizipen eta oroitzapenak.
- b. Bizitzaren hasiera eta amaiera: jaiotza eta heriotza.
- c. Udaberriaren eragina pertsonengan.

4. Aukera ezazu beltzez nabarmendutako hitz eta esaldiei komikian dagokien esanahia.

4.1. "*Gustura egoten ginen **biok biotara** txokolatea hartzen.*"

- a. Bata bestearen kontra.
- b. Ordu biak arte.
- c. Biok elkarrekin.

4.2. "*Jesus, neska, eta zer esan behar diozu, bada? **Doluminak** eman eta kito!*"

- a. Barkamena eskatu.
- b. Atsekabea eta elkertasuna adierazi.
- c. Eskumuinak edo goraintziak eman.

5. Uxuek triste dagoela esatean Ibrahimnek "*Jakina*" erantzuten du. Zer adierazi nahi du horrekin?

- a. Ikastola guztiak dakiela Uxue triste dagoela.
- b. Uxue oso neska jakintsua dela.
- c. Tristezia gauza arrunta dela horrelako egoera batean.

6. Zergatik dago triste Uxue?

.....
.....

7. 5. orrialdeko lehenengo biñetan "Uxue, zer... zera...non da Intza?" esaten du Maddik. Zergatik hasten da hitz totalka?

- a. Ahaztu egin zaiolako galdetu behar zuena.
- b. Ez delako ausartzen galdetu nahi duena galdetzera.
- c. Uxue nola sentitzen den jakitea baino Intza non dagoen kuxkuxeatzea nahiago duelako.

8. Zerekin izango du lotura **hartzidura** hitzak?

- a. Ogia egiteko prozesuarekin.
- b. Ikasketa-bidaia prestatzearekin.
- c. Hartzen eta beste piztia batzuen elikadurarekin.

9. 5. orrialdeko 2. binetan mutiko gazteenaren hitzak elkarri lotutako bi globo desberdinetan agertzen dira. Bestalde, mutikoaren buruaren inguruan marratxo batzuk ageri dira. Zer adierazi nahi da guzti horrekin?

.....
.....

10. Zer gertatu da 4. orrialdeko 5. binetan?

- a. Andereñoak "Txirriing!" hitza idatzi du arbelean saioa bukatu dela adierazteko.
- b. Jolasordua iragartzen duen txirrinaren hotsa entzun da.
- c. Ikasleek aulkiak mugitzean zarata eta zalaparta sortu dute.

11. Hainbat biñetatan aurreko urteetan Txanelako liburuetan ezagutu dituzun pertsonaiak ageri dira: Maddalen eta Fermin; Xabier, Mei Li eta Maider. Irakur itzazu arretaz euren hitzak eta erantzun: zein da istorio honetan duten funtzio nagusia?

- a. Istorioa luzatzea.
- b. Istorioari umore ukitu bat ematea.
- c. LHko hainbat proiektu eta une gogoratzen laguntzea.

12. Komiki honek baditu hainbat ezaugarri berezi: beste urte batzuetako pertsonaiak, ezohiko azken biñeta... Zer iruditu zaizu? Azal ezazu zure iritzia eta arrazoitu.

.....
.....
.....

13. Azkenik, errepara iezaiozu berriro ere izenburuari: "Badoa... badator!". Zer ote da badoana? Eta badatorrena?

.....
.....

KOMIKA: “Badoa... badator!”	
Erantzunak	Ebaluazio irizpideak
1) a-BAI, b-BAI, c-EZ, d-BAI, e-EZ, f-EZ, g-BAI, h-BAI.	7.3, 7.4, 7.6
2) b	7.6
3) a	7.1
4) 4.1-c, 4.2-b	7.3
5) c	7.3
6) Aitonaren heriotzagatik.	7.3, 7.6
7) b	7.4
8) a	7.3
9) Lehendabizi normal eskatu du ogia (globo normala), eta gero oihuka (puntadun globoa) eta haserre (marratxoak).	7.4
10) b	7.4
11) c	7.6
12) Iritzi arrazoitua.	7.7
13) Badoa LH, badator DBH.	7.6

Galdetegiarekin bukatu ostean, ikasleek tarte bat har duzabela aurre-ezagutzen orrian proposatzen diren gaien inguruan hausnartzeko. Gero, elkarrizketa sortu, talde txikietan. Bukatzean, talde bakoitzeko kide batek gela osoari adieraz diezaiola hitz egindakoak.

3. Proiektuaren aurkezpena

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 7. or.

Lehen Hezkuntzako azken mailako azken unitatea dugu hau, Txanelaren zikloa itxiko duena. Unitatea honetan lehendik ikasitako eta ikusitako hainbat gauza gogora ekarri eta beste zenbait ikasteko aukera ere izango dugu.

Proposatutako proiektuak bi dira:

- HHko azken urteko ikasleei, datorren ikasturtean LHko lehenengo mailan hasiko direnei, Txanela zer den aurkeztea. Aitzakia honekin aurreko urteetan ikasitakoari eta egindakoari erreparatu, eta erreparatuko dugu.
- DBHkoei elkarrizketa egitea. Datozen urteetan egingo dutenaren berri izan eta horren inguruan izan ditzaketen zalantzak eta beldurrak argitu eta uxatu.

Talde handian, proiektuak zein diren argitzeko irakur ezazue orrialde horretako informazioa eta egin ezazue elkarrizketa.

4. Entzunaldia: Dantza

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: CDa, 35. pista

Kurtso amaierako festa aitzakia, dantza bat ikastea proposatzen dizuegu: Nafarroa Beherako martxa. Hona hemen dantza hau dantzatzeko proposamen bat.

Ikasleak ilaran dantza tokira aterako dira bertan biribila osatu arte. Ateratzeko modua berezia izango da, alegia, banan-banan eta musikaren esaldiak adierazitako urratsak eginaz.

Bi konbinazio izango dira nagusi, A eta B deituko ditugunak, euren artean etengabe txandakatuz. A, dantzatzuz, eta B, oinez (musikaren erritmoa jarraituz). A konbinazioan lau urrats-segida berdin dantzatzuko dira. Honako urrats hauek osatzen dute segida bat:

- Alboz bi pausu arin emango ditugu.
- Buelta erdi emanaz (“*Buelta!*”) eta beste aldera begira gaudela, beste bi pausu arin.
- Berriro buelta erdi (“*Buelta!*”) eta, hanka batekin besteko orkatila ukitu (“*Orkatila!*”), beste hankarekin gauza bera agin (“*Orkatila!*”), hankak zabaldu (“*Zabaldu!*”) eta salto (“*Salto!*”).

Beraz, dantzak eskema hau jarrai dezake:

A (dantzatzuz)

1. urrats-segida (Lehenengo honetan ez dugu dantzarik egingo eta musikari adi egongo gara hurrengo urratsean garaiz hasteko.)
2. urrats-segida
3. urrats-segida
4. urrats-segida

B (oinez)

A (dantzatzuz)

1. urrats-segida
2. urrats-segida
3. urrats-segida
4. urrats-segida

B (oinez)

A (dantzatzuz)

1. urrats-segida
2. urrats-segida
3. urrats-segida
4. urrats-segida

B (oinez)

A (dantzatzuz)

1. urrats-segida
2. urrats-segida
3. urrats-segida
4. urrats-segida

B (oinez)

A (dantzatzuz)

1. urrats-segida
2. urrats-segida
3. urrats-segida
4. urrats-segida (Jendea agurtuz)

Aukerako urrats hauek, sormenari tokia eginez, zuen ekarpenekin hornitu ditzakezue bertsio berri bat asmatuz, hau da, oinez egiten diren zatietarako urrats edo keinuak asmatu eta dantzan txertatuz.

5. Ikasnorabidea

Lan egiteko era: Talde txikian/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 8. eta 9. or.

Taldetxoetan jarrita, ikasleek ikasnorabidea irakurtzeko eta haren interpretazioa egiteko tartea izango dute, esaldi bakoitzak adierazten duena argitzen saiatuko dira.

Gogora ezazue atal berri bakoitza hasi aurretik eta hura bukatzean ere ikasnorabidera joan-etorria egitea lagungarri gerta dakizuekeela, ikasleak egin beharrekoaz eta egindakoaz jabe daitezen.

6. Txoko zuria

Lan egiteko era: Talde handian

Talde handian elkarrizketa sortuko dugu gaiarekin zerikusia duen eta txoko zurira ekarri dezaketen materialei buruz hitz egiteko. Kontuan izanik unitate honetan Txanelan egindakoari errepassoa emango diogula, antola ezazue ikasle bakoitzak aurreko urteetan egindako zer material ekarriko duen gelara, gerta ez dakizuen txoko zuria antzeko gauzeekin gainezka izatea.

IKASITAKOIA BERRIKUSI: BIZIDUNAK

7. Ekosistemak, bizidunak

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Talde txikian/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 10. eta 11. or.

Talde handian, gaiari sartzeko eta girotzeko, ekosistemei buruzko aurrezagutzak aktibatuko ditugu. Ondoren, ikasleei tarte bat emango diegu liburuko jarduera irakurtzeko eta, *Eta zuk zer dakizu?* ataleko galderen inguruan hausnartzeko. Gero, talde txikitan hausnartutakoa alderatzeko elkarrizketa sortuko dugu. Ondoren, talde handian, taldetxo guztien ekarpenekin, gaiari buruzko ezagupenak konpartituko. Irakasle, momentu hau duzu aproposa gaiaren inguruko kontzeptu okerren bat edo gaizki ulerturen bat egon daitekeen edo ez detektatzeko, eta ahalik eta lasterren zuzentzeko, gai honi buruzko ezagupen berriak lantzen jarraitu aurretik.

8. Bizi-funtzioak: nutrizioa

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 10. eta 11. or./Irakurgaiak 6, 145. orrialdetik 148.era

Ebaluazioa:

• *Hizkuntza*

<i>- Gaitasun nagusia</i>	<i>Irakurmena</i>
<i>- Helburuak eta irizpideak</i>	<i>7 (7.1, 7.3, 7.4)</i>

Liburuko aginduak dioen moduan, lehenengo une batean, gainbegiratuaren irakur-teknika zer den gogora ekarri eta 11. orrialdeko testu eta irudiei aplikatu diezaietela ikasleek. Gainbegiratu horrekin *eta zuk, zer dakizu?* ataleko galderari erantzun diezaietela. Galdetegi horretan oinarrituta beste bat eskaintzen dizuegu hemen behean, nahi izanez gero, idatziaren ulermen-gaitasunaren ebaluaketarako erabiltzeko.

Bigarren une batean, testu eta irudien irakurketa osoa eta arretatsua egiteko eskatuko diegu ikasleei, eta *eta zuk, zer dakizu?* ataleko galderei lehen emandako erantzunak osatu edo zuzen ditzatela. Hori bakarka egin ondoren, talde handian kontrastatu ditzakegu bakoitzak emandako erantzunak.

Azkenik, irakurgaietako testua irakur dezakezue talde handian. Kontuan har ezazue, testu horretan gaiaren inguruko informazio osagarria eskaintzen dela, irakaslearen laguntza eta azalpenekin irakurri beharrekoa. Nahikoa izango da testu horretako ideia batzuk lehendik dakitenarekin erlazionatzeko eskatzea ikasleei.

Izena: Data:

GAINBEGIRATUA: "Eta zuk, zer dakizu... nutrizio-funtzioaz?"

GAINBEGIRATUA: "Eta zuk, zer dakizu... nutrizio-funtzioaz?"	
Erantzunak	Ebaluazio irizpideak
1)	
2)	
3)	
4)	
5)	
6)	
7)	
8)	
9)	
10)	
11)	
12)	
13)	

9. Bizi-funtzioak: erlazioa. Ahozko azalpenaren ulermena

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 12. or./13. lan-koaderno, 31., 32. eta 33. or.

Ebaluazioa:

• *Hizkuntza*

<i>- Gaitasun nagusia</i>	<i>Entzutezko ulermena</i>
<i>- Helburuak eta irizpideak</i>	<i>1 (1.1, 1.2, 1.3, 1.4, 1.5)</i>
	<i>2 (2.1, 2.2, 2.3)</i>

Jarduera honen helburua, bizidunen erlazio-funtzioari buruzko informazioa gogora ekartzea da, alde batetik, eta bestetik, ikasleen ahozko-ulermenari dagozkion hainbat irizpide ebaluatzeko aukera ere ematea.

Talde handian, liburuko informazioa irakurriko dugu, jarduera honetan egin beharrekoaz jabetzeaz gain, ahozko azalpen bat ulertzeko kontuan izan beharreko hainbat alderdi gogora ekartzeko.

Ondoren, 5.6. unitateko 16. eta 17. orrialdeko testuan oinarrituta, azalpena eman ikasleei. Nahi izanez gero, testua hitzez hitz irakur dezakezue, baina beti ere, ohiko azalpen batean erabili ohi diren baliabide erretorikoak erabiliz:

- Azalpenaren aurkezpena: *Lehendik ezaguna dugun gai bati buruzko azalpen bat emango dizuet. Laz ikusi genuen nolako harreman motak sortzen diren bizidunen artean. Informazio hura gogora ekarriko dugu, eta lehendabizi, espezie bereko bizidunen artean sortzen diren harremanei buruz hitz egingo dizuet, eta gero, espezie desberdinekoen artean sortzen direnez.*

- Hitz edo ideia nagusiak errepikatzea: *Beste hitz batzuekin esanda...*

- Hainbat ideia laburbiltzea: *Laburbilduz, esan genezake..., Esan duguna gogoratu, lehian oinarritutako harremanak ditugu, batetik: harraparitza eta parasitismoa. Inork kalterik jasaten ez duen harreman mota, bestetik: komentsalismoa. Azkenik, lankidetzan oinarritutako beste bi harreman motari buruz hitz egingo dizuet orain: mutualismoa eta sinbiosioa dira azken hauek.*

- Ikasleen arreta mantentzea: *Ondo ulertu al duzue azkena esan dudana hau?, Nahi al duzue berriz errepikatzea?, Zein izan da azkena aipatu dudana harreman mota?, Entzun ondo orain azalduko dudana, garrantzitsua da eta.*

Ikasleek entzunaldian oharrak idatz ditzatela, eta horiek kontuan harturik, lan-koadernoko galdetegia osatzeari ekin diezaiotela ondoren.

Hona hemen testu osoa:

ESPEZIE BEREKO BIZIDUNEN ARTEKO HARREMANAK

Hainbat bizidunek espezie bereko kideekin taldean bizitzeko joera dute, ugaltu eta espeziearen iraupena ziurtatzen. Joera horri *gregarismo* deritzen.

Argazkia: [atun sarda baten argazkia](#). Atunek sarda edo talde handitan bilduta migratzen dute ugaltu diren tokietatik janaria dagoen tokietara.

Sexu desberdinetako izakiek, ugaltzeko eta kumeak hazi eta zaintzeko elkartzen direnean, *familiak* osatzen dituzte. Espezie askotan, ar eta eme bikote batek umealdi bakar bat izaten du, eta hurrengo umealdietarako, bikotea aldatzen dute. Beste batzuetan, aldiz, ar bat eta eme bat bizitza osorako elkartzen dira; halaxe egiten dute kastoreek, adibidez.

Argazkia: [kastoreen argazkia](#). Kastoreen familiak familia iraunkorrak dira.

Elkarrekin bizi diren espezie bereko izaki bizidunen multzoari *kolonia* deritzen. Koralak edo itsas-belakiak, adibidez, koloniatan bizi dira, eta itsas honoari eta elkarri itsatsirik arrezifeak eratzen dituzte euren eskeletoen bidez.

Argazkia: [koral-arrezifea](#). Koral-arrezifea.

Talde bateko banakoen edo kideen artean funtzio edo eginkizunak argi eta garbi banatuta daudenean, kide horiek *sozietateak* osatzen dituztela esaten da. Hori egiten dute erle, inurri eta termitak.

Argazkia: [erlauntza baten argazkia](#). Erlauntza: **erle erregina** eme emankor bakarra da eta arrautzak errutea da haren eginkizuna; **erle langileak** emeak dira, baina antzuak, eta ezta eta argizaria ekoiztea da haien lana, besteak beste; **erlamandoak** arrak dira, eta erregina ernaltzea dute zeregin bakarra.

ESPEZIE DEBERDINETAKO BIZIDUNEN ARTEKO HARREMANAK

Espezie desberdinetako kideen arteko harremanak elkarren arteko lehian oinarrituak dira askotan, eta espeziatutako bat kaltetua ateratzen da harreman horretatik. Lehoia, arranoa edo hontza, esate baterako, beste espezie batzuetako animaliak harrapatuz eta jenez bizi dira. Parasitoak edo bizkarroiak ere beste espezie batzuen (ostalarien) bizkar bizi dira, besteak beste, gizakiaren hesteetan hazten den *tenia* zizarea edo zorri, arkakuso eta eltxoak. Bi harreman horietan, **harraparitzan** eta **parasitismoan**, alegia, espezie batek bestea kaltetzen du: harrapariak harrapakina, eta bizkarroiak ostalaria.

Argazkia: [hontza harrapakin batekin](#).

Argazkia: [eltxoa azala ziztatzen](#).

Baina bi espezieren arteko harremanak ez dira beti bietako baten kalterako izaten. Adibidez, *erromero* izeneko arrain txiki bat marrazoari edo antzeko beste animalia bati itsasten zaio, bentosa baten bidez, eta horiek utzitako hondakinez elikatzen da. **Komentsalismoa** deituriko harreman horretan, espezie batek (erromeroak) onura lortzen du, baina besteari (marrazoari) ez dio kalterik eragiten.

Argazkia: [erromeroa](#).



Lankidetzan oinarritutako harremanak ere eratzen dira espezie desberdinetako kideen artean.

Mutualismoa, esaterako, partaideen onura dakarren eta inori kalterik sortzen ez dion harreman mota bat da. Horrelakoa da, adibidez, landare eta intsektu askoren arteko harremana: landareek ernaltzea lortzen dute, intsektuek batetik bestera garraiatutako polenari esker, eta intsektuek, berriz, janaria aurkitzen dute loreetan. Elkartutako bi espezieen arteko harremana estua eta iraunkorra denean, mutualismo horri **sinbiosia** deritzen. Sinbiosiaren adibide garbia likenak dira: alga eta onddo bat elkartzen dira eta landare bakar bat osatzen dute.

Argazkia: [erlea lorea xurgatzen](#).

Argazkia: [likenez estalitako haitza](#).

LAN-KOADERNOA: “Irakaslearen azalpenei arreta jarrita”	
Erantzunak	Ebaluazio irizpideak
1) c	1.4
2) b	1.2, 1.5
3) Batetik, espezie bereko bizidunen arteko harremanak, eta bestetik, espezie desberdinetako bizidunen arteko harremanak.	1.2
4) Lehenengo atala edo azpigaia: familia, gregarismoa, sozietatea, eginkizunen banaketa, kolonia, ugaldu, taldean bizi. Bigarren atala edo azpigaia: onurak, kalteak, lehia, lankidetzak, sinbiosia, harraparitza, mutualismoa, parasitismoa, komentsalismoa.	1.2, 1.5
5) a-IN, b-X, c-X, d-X, e-IN, f-IN, g-X, h-IN, i-IN, j-X	1.2
6) b	1.3
7) c	1.3
8) a	1.3
Laburpena) Gidoiko informazioa zuzen adierazten duen laburpen bat eskatuko zaio ikasleari.	1.5
AHOZKO AZALPENEN ULERMENA	
Behaketarako beste irizpide batzuk	
- Arreta jarri du, hitzik gabeko erantzunak emanez, galderak eginez...	1.1
- Galderei erantzuteko behar zituen datu zehatzak ondo identifikatu ditu.	2.1
- Oharrak idatzi ditu.	2.2
- Idatzitako oharrak erabili ditu (galderei erantzuteko...).	2.3

10. Bizi funtzioa: Ugalketa

Lan egiteko era: Bakarka/Talde txikian/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 13. or.

Ebaluazioa:

• *Hizkuntza*

- <i>Gaitasun nagusia</i>	<i>Irakurmena</i>
- <i>Helburuak eta irizpideak</i>	7 (7.4)

Talde txikitik antolatuta, ikasleek, ugalketa-funtzioari buruzko aurre-ezagutzak aktibatuko dituzte liburuko orrialdean adierazten den informazio irakurritik. Ondoren, talde handian, bateratze lana egingo dugu, ugalketa-funtzioari buruz dakiguna adierazteaz gain, informazioa adierazteko teknikei ere arreta jarritik, alegia, informazio bakoitza adierazteko zein teknika erabiltzen den (krokisa, zoom-a...), nola adierazten den informazioa, nola interpretatu behar den etab.

Komenigarria irudituz gero, irudi eta grafikoaren interpretazio gaitasuna ebaluatzeko ere baliatu daitezke jarduerak hor. Horretarako, goian aipatutako urratsak eman aurretik, liburuko krokisak eta testuak aztertzeke, eta hor behetako galdetegiari erantzuteko eska genietzaieke ikasleei.

Izena: Data:

INFORMAZIOAREN ADIERAZPIDE GRAFIKOAK: "Eta zuk, zer dakizu... ugalketa-funtzioaz?"

INFORMAZIOAREN ADIERAZPEN GRAFIKOAK: "Eta zuk, zer dakizu... ugalketa-funtzioaz?"	
Erantzunak	Ebaluazio irizpideak
1)	
2)	
3)	
4)	
5)	
6)	
7)	
8)	
9)	
10)	
11)	
12)	
13)	

11. Lagun artean: Heriotza eta errituak

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 14. or./DVDa

Ebaluazioa:

• <i>Hizkuntza</i>	<i>- Gaitasun nagusia</i>	<i>Entzutezko ulermena</i>
	<i>- Helburuak eta irizpideak</i>	<i>1(1.1, 1.2, 1.3, 1.4, 1.5) 2(2.1, 2.2, 2.3)</i>

Kultura bakoitzak heriotza ulertzeko eta erritualizatzeko modu berezia du. Heriotza giza kultura guztietan interesa, jakin-mina eta beldurra sortu duen gaia izan da. Jarduera honen helburua euskal kulturaren eta ikasle bakoitzaren jatorriko kulturaren heriotzak duen garrantzia eta heriotzaren inguruan egiten diren errituak ezagutaraztea da, batetik. Bestetik, euren bizipenak konpartitzea eta gaiaren inguruko zalantzak eta kezkek era naturalean argitzea ere bada helburua, heriotzari buruz hitz egitearen beldurra uxatuz. Helburu horiez gain, entzutezko ulermen gaitasuna ebaluatzeko aukera berri bat izango dugu, DVDan eskainiko den ikus-entzunezko erreportajearen eta horri buruzko galdetegiaren bitartez.

Heriotzaren gaia jorrazteko liburuak bideratutako jarduerak (honako hau eta atzetik datozen beste zenbait) burutuko ditugu, sentsibilitate handiz eta beldurrik gabe, ikasleen jokabidea eta jarrera naturala eta osoa izatea nahi baldin badugu.

Talde txikitan antolatuta, ikasleek liburuak proposatutako galderen inguruan hitz egiteko aukera izango dute. Ondoren, talde bakoitzeko bozeramaleak talde handiari adieraz diezazkiola talde txikian esandakoak. Ikasleak talde txikietan ari direnean hizketan, behaketa lana egingo dugu, ikasleek gaiari nola heltzen dioten jakiteko, zein jarrera eta jokabide adierazten duten ikusteko etab. Bestetik, talde handiko elkarrizketa, ikasleen gaiaren inguruko sinismenak eta bizipenak detektatzeko ere baliatuko dugu.

Elkarrizketa honetarako galderen helburua, heriotzaren gaian sartzea da, girotzea eta era berean ondorio honetara heltzea: *Maite dugunaren heriotzak gugan eragina du eta sentimendu batzuk sortzen ditu.*

Gure ikasleak hainbat kulturatakoak izan daitezke, eta heriotzaren inguruko hainbat sinismen eta erritual izan. Horien guztien inguruko informazioa etxean galdetu eta jasotzeko eskatuko diegu, hurrengo egunean gelan elkarrekin konpartitzeko. Jarduera honen helburua da, ikasleak konturatzea, heriotza ulertzeko moduak eta heriotzaren inguruan egiten diren erritualak hainbat izan daitezkeela, eta denak direla oso errespetagarriak. Bestetik, etxean heriotzaren gaia era naturalean hitz egiteko uneak sortzea dute helburu etxerako proposatzen ditugun elkarrizketek.

Bestetik, garai bateko Euskal Herrian heriotzaren inguruan zituzten errito eta ohitura zaharren berri izateko DVDA ikusiko dugu. Helburua, hainbat istorio, xehetasun eta bitxikeriaren berri jasotzea izango da, izan ere ikasleek DVDA ikusi ostean, horiei buruzko galderei erantzun beharko baitiete. Galdetegiak ikasleen entzutezko ulermenaren behaketa egiteko aukera ematen du, helburu horri dagozkion irizpideak ebaluatzeko datu gehiago izan dezazuen.

Izena: Data:

IKUS-ENTZUNEZKO ERREPORTAJEA: "Heriotza eta heriotzari buruzko ohitura batzuk"

IKUS-ENTZUNEZKO ERREPORTAJEA: "Heriotza eta heriotzari buruzko ohitura batzuk"	
Erantzunak	Ebaluazio irizpideak
1)	
2)	
3)	
4)	
5)	
6)	
7)	
8)	
9)	
10)	
11)	
12)	
13)	

12. Heriotza eta sentimenduak

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 15. or./Irakurgaiak 6, 149. orriadetik 155.era/13. lan-koadernoan, 34., 35. eta 36. or.

Maite dugun pertsona baten heriotzak sortzen duen atsekabeari dolua esaten zaio. Dolua sentimenduen zurrumbiloa da: nahasmena, barneko hustasuna, tristura, erria, damua, haserrea, antsietatea, beldurra, amorrua...

Jarduera honek dolua ezagutzeko aukera ematen digu, zer den, zerk eragiten duen, zein diren doluaren prozesuaren faseak... Jarduera gelan hasi, baina etxean jarraipena izango du, ikasleei, etxekoekin gai honen inguruan hitz egiteko aukera luzatuz. Honez gero, ikasleek etxekoekin bigarren elkarrizketaldia izango zuten. Aukera gehiago ikusiz gero, bidera itzazue.

13. Testuak: Bizitza eta heriotza

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 15. or./Irakurgaiak 6, 149. orriadetik 155.era/13. lan-koadernoan, 34., 35. eta 36. or.

Ebaluazioa:

• *Hizkuntza*

<i>- Gaitasun nagusia</i>	<i>Irakurmena</i>
<i>- Helburuak eta irizpideak</i>	<i>7 (7.1, 7.2, 7.7)</i>

Ikasleek bakarka, irakurgaietako testuak aurrean dituztela, lan-koadernoko jarduera osatzeari ekingo diote.

Jarduera hau hizkuntzako testuen ulermen orokorra helburuari dagozkion irizpideak behatzeko eta ebaluatzeko baliatu dezakezue. Hala nola, testuen komunikazio helburua, testu mota eta gaia identifikatzeari dagozkionak.

LAN-KOADERNOA: “Era askotako testuen artean”	
Erantzunak	Ebaluazio irizpideak
1) a: 4 eta 11 testuak. b: 1, 2, 3, 5, 6, 7, 8, 9 eta 10 testuak.	7.1
2) Abestia: 5. Ipuin pasarteak: 8. Poema: 1, 7 eta 10. Bertsoak: 9. Ipuin zahar edo kondaira: 3. Igarkizuna: 2. Azalpen-testua: 4 eta 11. Txiste edo pasadizoa: 6.	7.2
3) a: 8, 10 eta 11. b: 4. c: 1, 2, 5 eta 7 (honek zalantzak sor ditzake). d: 3 eta 6. e: 2.	7.1
4) b	7.2
5) a, b, e eta g.	7.2
6) c	7.1
7) Iritzi arrazoitua.	7.7

Bukatzeko, testu bakoitza banan-banan eta ozenki irakurtzeari ekingo diogu, testuak adierazitakoaren gainean edo testuko hitzak gudan sortutako sentimenduez hitz egiteko elkarrizketa sortuz.

14. Entzunaldia: Bisualizazioa “Maite dugunari agur esan”

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 15. or./Irakurgaiak 6, 156. eta 157. or./CDa, 33. eta 34. pistak

Ikasleek euren bizitzan sufritutako galeren eta atsekabe sentimenduen inguruan hitz egiteko elkarrizketa sortuko dugu. Adibidez: familia nahiz lagun baten heriotza, animala baten heriotza, eskola edo herri aldaketa izanagatik galdutako lagun bat... Ondoren, ariketa jakin batzuen segida lantzeari ekingo diogu.

Jarduera osatzen duten ariketa hauek guztiak egun berean eta jarraian egitea aholkatzen dizuegu, beraz, har ezazue behar duzuen denbora egoki burutzeko. Jardueraren helburua, galera baten aurrean sortutako atsekabea askatzea eta lagun horri bihotzean, betiko, tokia egitea da. Esperientzia sakona bezain interesgarria izan daiteke, goza ezazue neurri berean.

① Aukera baldin badugu, ikasleek entzunaldia lurrean etzanda eta begiak itxita entzun dezatela. Bestela, euren jesarlekuetan, besoak mahai gainean jarrita eta burua besoan artean dutela. Begiak itxita egon daitezela.

Gontzal Mendibilek orkestrarekin abestutako “Memorian” abestia entzuten duten bitartean, euren bizitzan galdutako lagun batengan pentsatzeko esango diegu. Bisualizazioa librea izango da, alegia, ikasle bakoitzak musikak eta bere pentsamenduak sortutako irudiak eta sentimenduak bizitzeko eta esperimentatzeko aukera izango du.

Ondoren, ikasleek lau laguneko taldeak osatuko dituzte eta txandaka, elkarri, euren bizipena kontatuko diote. Batek hitz egiten duen bitartean bestea isilik eta entzuketara aktiboa egiten egongo da, hizlariaren sentimendurekin bat egiten ahaleginduz, euren txanda heltzean gauza bera eginaz.

② Jarraian, Imanolen “Mendian gora” abestiarekin bisualizazio bat egingo dugu.

Oraingoan, ikasleek, aurreko ariketan pentsatutako lagun horrekin igarotako une alaiak gogoan izan beharko dituzte. Bukatzean, berriro ere, lau laguneko taldetan antolatu eta prozedura bera jarraituz, sortutako sentimenduez hitz egin.

③ Ikasleek eskutitz bat idatz dieziotela lagun horri, esan gabe geratu zitzaizkien gauzak, esan nahi dizkietenak etab. adierazteko. Eskutitza agur esanaz buka dezatela, euren bihotzean lagunari, betiko, tokia eginaz. Eskutitza, argazki edo irudi batekin apaindu dezakete.

Lagun hauen guztien omenez zerbait berezia egiteko proposamena luzatzen dute orrialde horretako globoek. Aprobetxa ezazue hildako nahiz galdutako lagun guztiak omentzeko aukera eta, gelan eta ikasleen bizitzan, dagokien tokia ematekoa.

Oharra: Gai honek hainbat sentimendu eragingo ditu ikasleengan, tristurak eta negarrak izan daitezke hasieran nagusi. Gogoan izan euren barruan gordeta eta azaleratu gabeko sentimenduak direla eta horiek adieraztea askabidea dela, eta beraz, pozteko arrazoia, eta ez ariketa saihestekoa.

Jarduerok, hildakoak eta galdutakoak gogoan izaten eta maitatzen lagunduko digute eurengandik jasotakoa eta ikasitakoa eskertzeko aukera emanaz, nahikoa arrazoi poztasun eta esker on sentimenduei tokia egiteko.

Bestalde, ez legoke soberan gurasoei lanketa honen berri ematea.

Gelako norbaiti hurbileko pertsonaren bat hil bazaio duela denbora gutxi, jarduera hau egitea proposatzen dizuegu.

- X-k Y galdu berri du. Begiak itxiko ditugu, denok, eta momentu batez X-en atsekabe sentimenduekin bat egiten eta sentimendu hori bizitzen saiatuko gara. Orain Y imajinatuko dugu gela begiratzeko eta beraz, gu guztioi begira, eta gaurko eskola eguna, eta ikasitakoa eta egindako guztia, haren omenez beteko dugu.

Arbelean idatzi “Gaurko eskola eguna Y-ren omenez burutuko dugu”.

Horrelako gertakizunak gertatzen zaizkienean gure ikasleei, gainetik pasa beharrean eguneroko jardueran integratu behar ditugu. Modu horretan, gertakizunekin sintonizatuko dugu eta aintzat hartuko ditugu, galera sufritutako ikaslea bera eta, baita alderdi akademikoa ere, biekin bat eginaz. Litekeena da egun horretan ikasleak zintzo eta gogotsu ekitea lanari eta eskola eguna primeran betetzea.

Beste egun eta momentu batean, bi entzunaldien letrak irakurtzeari ekin diezaioketue, haien letrak interpretatzeari eta norberarengan sortzen dituzten sentimenduak konpartitzeari ere. Etxean eta gurasoekin ere irakur ditzakete abestiok.

15. Bizidunen sailkapena

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 16. or.

Talde handian, bizidunen sailkapen nagusia gogora ekarriko dugu, gaiari buruzko aurre-egutuz aktibatuz. Bestetik, testuan adierazi bezala, ikasleei argitu iezaiezue, behin betiko sailkapenak eskeintzearen arriskua zein den, nahiz eta guk datozen orrialde horretan jarritakoari helduko diogun.

16. Zelulatik organismora. Hiztegiaren erabilera

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 16. eta 17. or./CD-ROMa

Ebaluazioa:

• *Hizkuntza*

<i>- Gaitasun nagusia</i>	<i>Irakurmena</i>
<i>- Helburuak eta irizpideak</i>	7 (7.4)
	8 (8.1, 8.2, 8.3)

Tarte bat emango diegu ikasleei bizidun zelulanitzak zer diren eta nola eratuta dauden gogora ekartzeko, lan horretan laguntzeko, hiztegiaren giltza-hitzen esanahia bilatzeari ekin diezaiotela.

Izena: Data:

**INFORMAZIO ITURRIEN ERABILERA:
"Hiztegia keta hiztegi entziklopedikoak"**

**INFORMAZIO ITURRIEN ERABILERA:
"Hiztegiak eta hiztegi entziklopedikoak"**

Erantzunak	Ebaluazio irizpideak
1)	
2)	
3)	
4)	
5)	
6)	
7)	
8)	
9)	
10)	
11)	
12)	
13)	

17. Landare eta animalien sailkapena

Lan egiteko era: Binaka/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 18. eta 19. or.

Tarte bat emango diegu ikasleei binaka landare eta animalien sailkapenari buruzko aurre-ezagutzak aktibatu ditzaten. Ondoren, talde handian eta irakaslearen laguntzaz sailkapena arbelean idazteari ekingo diogu. Ikasleek sailkapena euren koadernoan idatziko dute eta berriro ere, binaka, sailkapena aurrean dutela lagunari azalduz, haren interpretazioan eta ulermenean trebatuko dira, irakasleari adierazi aurretik.

18. "Luko markesa"

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Irakurgaiak 6, 158. eta 159. or.

Ebaluazioa:

• *Hizkuntza*

- *Gaitasun nagusia*

Irakurmena

- *Helburuak eta irizpideak*

6 (6.1, 6.2)

Hegaztiak eta txoriak asko maite zituen gizonaren ipuina ikasleen irakur-gaitasuna behatzeko erabil daiteke.

Aurreko jardueran animaliak hizpide izan ditugula aprobeztatuz, ipuin hau aurkez diezaiekegu ikasleei eta testuren irakurketa adierazkorra presta dezaten agindu.

Horretarako, irakurketa mota horri buruz ikasitakoak gogora ekarriko ditugu guztien artean (Ikusi: 5.5 unitateko 44., 45. eta 52. orrialdeak). Ondoren, irakurraldia prestatzeari ekin diezaiola ikasle bakoitzak, bai bakarka, bai ikaskide baten laguntzarekin (elkarri entzunez eta hobetzeko oharrak eginez...).

Azkenik, banan-banan irakurrarazi ikasleei ipuinaren pasarte bat, eta ebaluaziorako oharrak jaso. Ebaluazioan partaide izan daitezke ikasleak ere, entzule guztien artean baloratuz irakurlearen lana. Ebaluazio jarduera hau eramangarriagoa izan dadin antzerako beste testu batzuk ere erabil daitezke ipuin bera behin eta berriro entzun beharrik ez izateko.

IRAKURKETA ADIERAZKORRA: “Luko markesa”	
Behaketarako irizpideak	Ebaluazio irizpideak
<ul style="list-style-type: none"> - Bolumena - Intonazioa (doinuera) - Geldiuneak - Tinbre-aldaketa (pertsonaien hitzetan) - Zehaztasuna (zuzentasuna) - Ahoskera (fonemena hoskera egokia, elkarketa fonetikoak) - Begiradak - Buru-, beso-, eta gorputz-mugimenduak - Begi- eta aho-keinuak - Abiadura - Baliabide guztien integrazioa. Testuari zentzua emanez era integratuan erabili ditu ahotsaren eta gorputzaren baliabide adierazkorrak. 	6.1, 6.2

19. Ingelesa: Classifyng animals

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 20. or.

Berrikusketarako azken unitate honetan, ikasleek dagoeneko ezagutzen duten animalien sailkapena ingelesez nola esaten den landuko dugu. Ondoren *Nor da nor?* jolasaren bidez animalien ezaugarriak berrikusiko ditugu.

Materials:

- Sheet of animal names (below)
- Large pieces of wall paper (if you are not going to use the board)
- Txanela book

Procedure:

Tell the pupils we are going to work on types of animals in English. Ask them to give you a few names of animals e.g. lion, shark, octopus... Write them up on the board. When you have a few ask them to tell you how animals are classified.

- *What kind of animal is a lion? A reptile? An insect? No, a mammal.*

Continue with a few more examples and when they have the idea of classifying clear, ask them to tell you all the animal types they know.

Write the headings up on the board (or on a big paper) and check the pronunciation of these new words with the pupils.

Mammals
Birds
Fish
Reptiles
Amphibians
Molluscs
Insects
Crustaceans:

Photocopy the animal names (see below), cut them out and hand out one to each pupil.

Ask the pupils to read their animals names and make sure they all know what animal they are and what family they belong to.

Tell them to stand up and find the other animals that belong to their same family. Model the dialogue:

- *Are you an insect?*
- *No I'm a dolphin. I'm a mammal.*

Once the families are completed, ask the pupils to stick or write the animals under the correct headings (on the board/big paper).

- Mammals: whale, bat, panda, mongoose
- Birds: eagle, flamingo, hummingbird
- Fish: shark, codfish, clown fish
- Reptiles: chameleon, snake, crocodile
- Amphibians: frog, toad, salamander
- Molluscs: snail, squid, clam
- Insects: ladybird, dragonfly, grasshopper
- Crustaceans: crab, prawn

Then, ask the pupils to open the books at page 20 and look at the animals. Check they know the names now of all the pictures they can see. Work on the pronunciation.

Play *Who's who* game with the whole class in order to do an example of the game and brainstorm the possible questions to ask and the answers.

- *Is it a vertebrate / an invertebrate*
- *Does it have legs / wings / fur / feathers / scales / a shell*
- *Is it a mammal / insect / fish*
- *Is it big / small / green / brown*

Finally, ask them to play *Who's who?* in pairs.

WHALE	BAT	PANDA	EAGLE
FLAMINGO	HUMMINGBIRD	SHARK	CODFISH
CLOWN FISH	CHAMELEON	SNAKE	CROCODILE
FROG	TOAD	SALAMANDER	SNAIL
SQUID	CLAM	LADYBIRD	DRAGONFLY
GRASSHOPPER	CRAB	MONGOOSE	PRAWN

20. Ahozko azalpena. Idatzizko azalpen-testu baten ekoizpena

Lan egiteko era: Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 21. or.

Ebaluazioa:

• <i>Hizkuntza</i>	- Gaitasun nagusia - <i>Helburuak eta irizpideak</i>	Ahozko adierazpena 5 (5.1, 5.2, 5.3, 5.4, 5.5, 5.6, 5.7)
• <i>Hizkuntza</i>	- Gaitasun nagusia - <i>Helburuak eta irizpideak</i>	Idatzizko adierazpena 10 (10.1, 10.2, 10.4, 10.5) 11 (11.1, 11.2, 11.4, 11.5, 11.6, 11.7, 11.8, 11.9, 11.10)
• <i>Ingurunea</i>	- Gaitasun nagusia	Ulermena - <i>Aukeratutako inguruneko gaiarena:</i> <i>Ekosistemak, bizidunen funtzioak, animalien sailkapena</i>

Orain arte unitatean landutako eta eurek aukeratutako gai baten ahozko aurkezpena prestatu eta gauzatu beharko dute gure ikasleek gelakideen aurrean, eta azalpen horren planifikazio fasean arreta berezia eskainiko diote gaiari buruzko azalpen-testu bat idazteari.

Aukerako gaiak hauek dira: ekosistemak, bizitzaren funtzioak, nutrizio-funtzioa, erlazio-funtzioa, ugalketa-funtzioa, animalien sailkapena eta landareen sailkapena.

Lan honek, beraz, bi zati izango ditu:

-Azalpen testu bat idaztea. Testuaren berrikusketa eta zuzenketa egin aurretik komenigarria litzateke ikasleek 21. jarduera (lan-koadernoko gramatika ariketak) egitea, berrikusketa eta zuzenketa lanerako lagungarria gertatuko baitzaie.

IDATZIZKO AZALPEN-TESTUA	
Behaketarako irizpideak	Ebaluazio irizpideak
- ...	10.1
- ...	10.2
- Testua idazten hasi aurretik, eskema batean bildu ditu ideia nagusienak.	10.4
- Eskemak azalpeneko ideia garrantzitsuenak eta horien antolaketa (jarraitu nahi duen ordena edo egitura) islatzen ditu.	10.4
- Aurretik hartutako erabakiak eta egindako planak (eskema...) jarraitu ditu eta horiek testuan islatu ditu.	10.5
- Ekoizpen prozesuaren uneren batean (planifikazioan, berrikusketan...) talde-lanean burutzeko zereginetan elkarlanean modu aktiboan jardun du.	10.6, 11.11
- Ulergarria izan dadin beharrezko osagaiak eta ideiak biltzen ditu azalpenak.	11.1
- Azalpen bati dagozkion osagai eta atal konbentzionalak (definizioa, garapena...) jasotzen ditu testuak.	11.5
- Ideiak modu koherentean (ondo ordenatuta) adierazi ditu.	11.6
- Ideiak paragrafotan ongi bildu ditu.	11.6
- Kohesio elementuak (puntuazio markak, testu antolatzaileak...) ondo erabili ditu.	11.7
- Zuzentasun-maila onargarria erakutsi du: landutako hizkuntza egiturak zuzen erabili ditu; landutako arau ortografikoak bete	11.8

ditu; hiztegia kontsultatuz zuzentzeko moduko akats ortografikorik ez du egin...	
- Hizkuntza baliabideak (lexikoa, joskera...) egoki erabili ditu.	11.2
- Hizkuntza aberastasuna eta estilo pertsonala adierazten duten baliabideak (lexiko aberatsa eta zehatza, sintaxi aberatsa...) erabili ditu.	11.9
- Testua behar beste berrikusteko eta hobetzeko jarrera, ekimena eta autonomia-maila nahikoa erakutsi du.	11.10
- Azken bertsioa egoki eta zuzen aurkeztu du: kaligrafia zuzen eta irakurgarria; testuaren banaketa egokia orrialdean; letra tipo eta irudi egokiak...	11.4

-Ahozko azalpena egitea.

AHOZKO AZALPENA	
Behaketarako irizpideak	Ebaluazio irizpideak
- Behar izan dituen informazio iturriak erabili ditu.	5.1
- Kalitatez eta kantitatez, informazio egokia hautatu du.	5.2
- Informazioa ondo egituratu du.	5.3
- Azalpena prestatzeko euskarri idatziak (eskema, oharra, esan beharrekoaren testua...) erabili ditu.	5.1, 5.2, 5.3
- Diskurtso antolatzaileak egoki erabili ditu.	5.4
- Diskurtsoa ulergarri egiteko eta entzuleen arretari eusteko estrategiak (errepikapena, enfasia, galdera erretorikoak, euskarri grafikoak...) erabili ditu.	5.5
- Ideiak argi, zuzen eta jarioasunez adierazi ditu, baliabide prosodikoak (ahoskera, bolumena, doinuera...) eta keinuzkoak (begiradak, eskuen mugimenduak...) egoki erabiliz.	5.6
- Autonomia-maila nahikoa erakutsi du planifikatze eta burutze prozesuetan zehar.	5.7

Lan hauek nola burutu liburuak esaten du, hala ere, ezertan hasi aurretik, talde handian irakurri eta argitu ezazue egin beharrekoa lana.

21. Hizkuntzaren sistema I

Lan egiteko era: Bakarka

Materiala: 13. lan-koadernoan, 37. orrialdetik 41.era/CD-ROMa.

Ebaluazioa:

• Hizkuntza	- <i>Gaitasun nagusia</i>	<i>Hizkuntzari buruzko hausnarketa</i>
	- <i>Helburuak eta irizpideak</i>	<i>12 (12.1, 12.2, 12.3, 12.4, 12.5, 12.6)</i>

Gure ikasleek euren hizkuntza egoki eta zuzen erabiltzen ikasteko hainbat ariketa egin izan dituzte urte hauetan zehar. Ikasitakoak gogora ekartzen laguntzeko, ikasleek, lan-koadernoko sekuentzia bakarka osatzeari ekingo diote. Lan hau oso baliagarria gertatuko zaie, ondoren, aurreko jardueran ekoiztutako azalpen testuaren berrikusketa eta zuzenketa egiteko orduan.

Ohar modura aipatzen dizuegu, aurrerago mota honetako beste sekuentzia bat ere baduzuela, literatur testuetan zein eguneroko hizkeran erabiltzen ditugun hizkuntza-elementuen inguruko ariketekin osatua. CD-ROMean ere mota honetako hainbat ariketa dituzue, beharra duten ikasleak treba daitezten.

Sekuentzia hauetako ariketa batzuk, nahiz zuek osatutako antzeko ariketak, hizkuntza zuzen eta egoki erabiltzearekin zerikusia duten helburuak ebaluatzeke baliatu ditzakezue.

LAN-KOADERNOA: “Hizkuntzaz eta hizkuntzaren erabileraz I”	
Erantzunak	Ebaluazio irizpideak
1) <i>asko, horietariko, bakoitzean, izaki, batzuk, bizidunak, mikroorganismoak, bizigabeak, bakoitzeko, han, bizi, bizidunek, osatzen, sistemari, ekosistema, deitzen.</i>	12.2
2) <i>BEHIEN, deritzon, Erronkari, biltzen, urtez, uztailaren, horien, artzaintzarako, hitzarmena, ospatzen.</i>	12.4
3) a: <i>guk, animaliak, Ø; b:</i> <i>Ø, (askotariko) bizidunak, Ø; c:</i> <i>Ø, erromeroa (izeneko arraina), marrazoari; d:</i> <i>kukuak, arrautzak, (beste) txoriei.</i>	12.1
4) a: <i>daiteke; b:</i> <i>lizateke; c:</i> <i>dadin; d:</i> <i>dezakete; e:</i> <i>zaio; f:</i> <i>dute; g:</i> <i>dituzte; h:</i> <i>nuke.</i>	12.2
5) a: <i>bizidunek, bizidunen, organikoak; b:</i> <i>bizidunak, inguruko, estimuluei, erantzuna; c:</i> <i>krokisak, tekniketako; d:</i> <i>landareak, moduaren; e:</i> <i>Basoetako, landareak, elkarren, artean.</i>	12.2
6) a: <i>Pertsonengana; b:</i> <i>basotik; c:</i> <i>gai; d:</i> <i>funtzioez; e:</i> <i>Noraino.</i>	12.2, 12.5
7) a: <i>lagunekin; b:</i> <i>legamian; c:</i> <i>hiztegira; d:</i> <i>bizidunek; e:</i> <i>belarjaleez.</i>	12.1, 12.2
8) Adibidez, a: <i>Hego Amerikan dagoen Amazonia munduko oihanik handiena da. b:</i> <i>Uretan murgilduta edo lehorreko leku hezeetan bizi diren algak landareak dira. c:</i> <i>Arkimedesen torlojua barnean espiralean bildutako arranpla bat daukan zilindro luze bat da.</i>	12.3
9) Adibidez, a: <i>Erleak ziztatu eta azala igurtzi dudalako zabaldu da pozoia. b:</i> <i>Landarea ihartu egin da ez duelako ureztatu. c:</i> <i>Basamortuko sugeak harrapakinak erraz harrapatzen ditu kamuflatu egiten delako.</i>	12.3
10) Ordena honetan: <i>d, b, e, c, g, f eta a.</i>	12.2
11) a: <i>b eta c; b:</i> <i>f; c:</i> <i>d; d:</i> <i>a; e:</i> <i>e.</i>	12.2
12) Adibidez: <i>Ekar itzazu gelara hainbat fruta: sagarra, marrubia, gerezia, arana, platanoa... Zaitu fruta bakoitza erditik eta aztertu haziak. Lupa erabil dezakezu horretarako. Marraztu fruta bakoitzean hazia. Azterketa amaitutakoan, banatu fruta zatiak denon artean eta on egin diezazuela!</i>	12.2, 12.4
Behaketarako beste irizpide batzuk	
- Aztertutako hizkuntz-elementuak zuzen eta egoki erabili ditu bere ekoizpen idatzian (azalpen-testua). - Autonomia nahikoa erakutsi du aztertutako hizkuntz-elementuen erabilera zuzena eta egokia bere testu idatzian (azalpen-tstua) berrikusteko.	12.6

ZELULA, BIZIDUNON OINARRIZKO UNITATEA

22. Zelula. Hitzen osaera

Lan egiteko era: Talde txikian/Talde handian/Bakarka/Binaka/Talde handian
Materiala: Ikaslearen liburua, 22. or./13. lan-koaderno, 42., 43. eta 44. or.

Ebaluazioa:

• **Hizkuntza**

- Gaitasun nagusia	Hizkuntzari buruzko hausnarketa, Irakurmena
- Helburuak eta irizpideak	12 (12.1, 12.2) 7 (7.3)

Talde txikitan antolatuta, ikasleak zelulari buruzko aurre-ezagutzak martxan jartzeko, liburuko galderei erantzuna bilatzen saiatuko dira, gero talde handian, bateratze lana egiteko.

Bizidun, bizigabe, zelulanitzak... aurre-ezagutzetako hainbat hitz aitzakiatzat hartuta, hitz elkartu eta hitz eratorriak landuko ditugu. Ikasleek, bakarka, lan-koadernoko jarduera osa dezatela. Bukaeran talde handian, nahiz binaka, lana berrikusteari ekin diezaioketue.

Gogoan izan, hitzen osarearekin zerikusia duten hainbat jarduera aurkituko dituzuela CD-ROMean ere.

LAN-KOADERNOA: "Hitzen osaera"	
Erantzunak	Ebaluazio irizpideak
1) <i>mikro/organismo, marrazki/lari, milioi/ka, holand/ar, ur/tanta, bizi/funtzio, inguru/men, zientzia/lari, aurki/kuntza, globu/xka.</i>	12.1
2) Hitz elkartuak: <i>mikroorganismo, ur-tanta, bizi-funtzio.</i> Hitz eratorriak: <i>marrazkilari, milioioka, holandar, ingumen, zientzialari, aurkikuntza, globuxka.</i>	12.1
3) a: <i>bizardun</i> ; b: <i>jokaera</i> ; c: <i>txerriki</i> ; d: <i>lotsagarri</i> ; e: <i>menditsu</i> ; f: <i>sagarrondo</i> ; g: <i>pagadi</i> ; h: <i>mahaikide</i> ; i: <i>herrixka</i> ; j: <i>gaztaro.</i>	12.2
4) a: <i>ezinezkoak</i> ; b: <i>zehatzagoak</i> ; c: <i>Ikaskiderik</i> ; d: <i>etxeoia</i> ; e: <i>Pinudi.</i>	12.2, 7.3
5) a: <i>itsasontzi</i> ; b: <i>sendabelar</i> ; c: <i>ikasgela</i> ; d: <i>jaioterri</i> ; e: <i>salneurri</i> ; f: <i>kopetilun</i> ; g: <i>jakin-min</i> ; h: <i>ulergaitz.</i>	12.2, 7.3
6) a. Ulerterraz: <i>Erraz, nekerik gabe ulertzen dena.</i> b. Erosiberri: <i>Duela gutxi erositakoa.</i> c. Odolustu: <i>Odol asko galdu.</i>	12.1, 7.3

23. Zelula eta mikroskopia. Ideia nagusia

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Talde txikian

Materiala: Ikaslearen liburua, 22. eta 23. or.

Ebaluazioa:

• <i>Hizkuntza</i>	- Gaitasun nagusia	Idatziaren ulermena, Idatzizko adierazpena
	- Helburuak eta irizpideak	9 (9.1, 9.2, 9.3)

Talde handian ideia nagusiari buruz dakiguna gogora ekarriko dugu. Ondoren, ikasleek "Zelulak eta mikroskopia" testua irakurri eta ideia nagusiak identifikatzeari eta euren koadernoan idazteari ekingo diote. Bukatzean, talde txikietan, egindako lana alderatu eta bateratuko dugu.

Ebaluazio irizpideen behaketa errazteko, honako urrats hauek emateko eska geniezaieke ikasleei:

- ① Paragrafoz paragrafo, paragrafoko gaia adierazten duen hitza edo hitzak borobil baten barruan sartu.
- ② Paragrafoko ideia nagusia adierazten duten hitzak azpimarratu.
- ③ Azpimarratutako hitzak erabiliz, edo ideia bera adierazten duten beste hitz batzuen bitartez, paragrafoko ideia nagusia azaltzen duen esaldi bat osatu.

Komenigarria irudituz gero, urrats bat gehiago emateko ere eska geniezaieke:

④ Paragrafo guztietako ideia nagusiak modu egokian antolatuz eta erlazionatuz, testuaren laburpena idatzi.

Honako hauek izan daitezke testuko ideia nagusiak:

1. paragrafoa. Ideia nagusi esplizitua, “Zer da organismo edo bizidun bat?” galderari erantzuten diona.

- **Organismo edo bizidun bat** materiaz osatutako egitura ondo antolatua eta konplexua duen izakia da, bizi-funtzioak egiteko gai dena.

2. paragrafoa. Ideia nagusi esplizitua, “Zer da zelula?” galderari erantzuten diona.

- **Zelula** bizidunen oinarritzko unitatea da.

3. paragrafoa. Ideia nagusi esplizitua, baina interpretazio batzuk egin behar dira egoki adierazi ahal izateko.

- *Begi bistaz ikusi ahal izateko tamaina oso txikikoak izaten direnez, **mikroskopia** da zelulei behatzeko tresna optikorik egokiena.*

4. paragrafoa. Ideia nagusi esplizitua, birformulatu beharrekoa.

- *Galileo Galileik eta Zacharias Jansenek asmatu zituzten **lehengo mikroskopia** XVII. mendean.*

5. paragrafoa. Ideia nagusi esplizitua, birformulatu beharrekoa.

- *Gero eta mikroskopia hobekien erabilpena eragin zuten eta horri esker hainbat aurkikuntza egin ziren, besteak beste, Robert Hookek zelulak aurkitu zituen.*

6. paragrafoa. Ideia nagusi esplizitua, birformulatu beharrekoa.

- *Anton Van Leeuwenhoek izeneko merkataria, berak egindako mikroskopia sinple baina bereziki esker, mikroorganismoak (bakterioak), espermatozoideak, globulak gorriak eta abar, aztertu eta horien marrazki zehatzak egin zituen.*

7. paragrafoa. Ideia nagusi esplizitua, birformulatu beharrekoa.

- ***Gaur egungo mikroskopia** zehatzagoak dira eta mikroskopia elektronikoek irudia 500.000 aldiz handiagoak dute.*

IDEIA NAGUSIA: “Zelula eta mikroskopia”	
Behaketarako irizpideak	Ebaluazio irizpideak
- Paragrafoko gaia identifikatzen du.	9.1
- Ideia nagusia adierazten duten hitzak ondo hautatu eta azpimarratzen ditu.	9.1
- Testuan hitzez hitz adierazitako ideia nagusiak zuzen adierazten ditu esaldi bakar batean.	9.2
- Testuan sakabanatuta dauden hitzak erabiliz, edo esanahi bereko beste hitz batzuekin, ideia nagusiak esaldi egokiak osatuz birformulatzen ditu.	9.2
- Testuko ideia nagusiak laburpen batean integratzen ditu, koherentzia, kohesio eta zuzentasun-maila nahikoarekin.	9.3

24. Mikroskopiaoren behaketa eta erabilera

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 24. or.

Unitate honetan ikasleek hainbat esperimentu burutu eta mikroskopia bidezko hainbat substantziaren behaketak egin beharko dituzte. Hori dela eta, mikroskopia erabiltzen hasi aurretik haren erabilpenari buruz dakiguna gogora ekarriko dugu talde handian, aurrez-aurre izango duten mikroskopiaari behatuz eta liburuko informazioa harekin erlazionatuz.

25. Zelula. Informazio zehatza bilatzen

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 25. eta 26. or./13. lan-koaderno, 45., 46. eta 47. or.

Ebaluazioa:

- Hizkuntza

- Gaitasun nagusia	Irakurmena
- Helburuak eta irizpideak	7 (7.1, 7.3)
	8 (8.1, 8.2, 8.3)

Ikasleak hautaketarako-irakurketa egiteko duten gaitasuna behatzeko aukera ematen du jarduera honek, alegia, helburu jakin baten arabera informazio zehatza testutan aurkitzea; aginduak (galderak) arretaz irakurri eta ondo ulertzea, horietan eskatzen zaiena zehatz-mehatz betetzeko; informazio iturriak modu eraginkorrean erabiltzea...

Lanean hasteko, bete beharreko lana aurkeztuko diegu ikasleei, ongi azpimarratuz lan-koadernoko ariketen aginduak arretaz irakurri eta bertan eskatzen zaiena zehatz-mehatz bete behar dutela modu autonomoan.

Zelulari buruzko informazioari dagokionez, liburuan aurkezten diren datuez eta irudiez gain, interneten ere berriak bila daitezke, hartara ikasleak informazio iturri horren erabilera nola moldatzen diren ere ikusi ahal izango dugu.

Jarduera amaitzeko, talde handian, egindako lana berrikusiko dugu, zelulari buruz jakitea interesatzen zaizkigun ideiak azpimarratuz.

LAN-KOADERNOA: "Informazio zehatza bilatzea"	
Erantzunak	Ebaluazio irizpideak
1) <i>b</i>	8.1, 7.1
2) <i>a</i>	8.1, 8.2, 7.3
3) 1 testua: <i>b</i> ; 2 testua: <i>a</i> ; 3 testua: <i>f</i>	8.1, 8.2
4) a : unizelularrak; b : plurizelularrak; c : leukozitoak; d : bizidunak	8.1, 8.2, 7.3
5) a : erreka hitzarena aurretik, erreinatu hitzaren ondoren; b : 2; c : Bakterioek moneroen taldea osatzen dute.	8.1, 8.2, 8.3, 7.3
6) a : 3; b : 2; c : 5; d : 1; e : 4	8.1, 8.2, 7.3

7) a: mintza; b: zitoplasma; c: bizidun autotrofoak, landare zelulak; d: landareak	8.1, 8.2, 7.3
8) a: Era askotako zelulak moldatzen direla bete behar dituzten funtzio zehatzak ahalik eta hoberen betetzeko. b: Oxigenoa garraiatu. c: Landareek duten egitura zurrun eta gogorrean. d: Elikatzeko eraren arabera.	8.1, 8.2
9) <i>b</i>	8.1, 8.2
10) a: bakuloak; b: nukleoa; c: kloroplastoa; d: mitokondrioak; e: erribosomak	8.1, 8.2, 7.3

26., 27., 29., 30., 31., 35. eta 36. jarduerak: Esperimentuak

Ebaluazioa:

• *Ingurunea*

<p>- Gaitasun nagusia - Helburuak eta irizpideak</p>	<p>Ikerketa <i>Talde lana</i> <i>Materialen erabilera</i> <i>Materialen eskuratzea</i> <i>Esperimentuen prestatzea</i> <i>Esperimentuen gauzatzea</i> <i>Partaidetza</i> <i>Antolamendua</i> <i>Garbitasuna</i> <i>Fitxen osaketa</i></p>
---	---

Ikasleek gaiaren inguruko hainbat ezagutza errazago ulertzeko eta barneratzeko zenbait esperimendu burutu beharko dituzte. Esperimendu errazak, eta emaitza onekoak dira proposatzen direnak. Ikasleek zelulak ikusi ahal izango dituzte, eta oso motibagarria izan ohi da eurentzat.

Irakasle, ikerketari dagozkion hainbat irizpideri behatu eta ebaluatzeko aukera aproposa duzunez, komenigarria litzateke ezertan hasi aurretik, talde finkoak osatzea esperimenduak gauzatu aurretik. Hor goiko koadroan esperimendu guztietan behatu ditzakezuenak adierazten zaizkizue. 2. esperimentuari dagokionean, ahozko ulermenaren behaketa egiteko aukera ere baliatu dezazuen proposatzen dizuegu.

Ikasleak talde txikitik antolatuko dira liburuak proposatutako esperimenduak planifikatu eta prestatzeko, (beharko dituzten materialak aldeztu aurretik bilduz, lanak banatuz...) burutzeko, eta ondorioak ateratzeko. Lan hauek liburuak eta irakaslearen esku hartzea ere eskatuko dituzte; laborategia prestatzea, materialak eskuratzea, zenbaitetan esperimenduak bideratzen laguntzea... Beraz, erregula eta kudeatu itzazue, baldintzak kontuan hartuta, egokien ikusten duzuen modura.

Esperimendu bakoitza bukatu ostean egin ezazue elkarrizketa, talde handian, talde bakoitzak bere ondorioak aurkeztu, alderatu eta bateratzeko.

26. 1. esperimentua: Animalia-zelulen behaketa (mukosa)

Lan egiteko era: Talde txikian/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 27. or.

Liburuko argibideak jarraituz jarduera osatu eta berrikus ezazue. Lehen ere hitz egin izan dugu laborategiko lanetan segurtasun neurriek duten garrantziaz. Esperimentu honetan gazezko metxeroaren eta kirtendun orratzaren erabilera zaindu beharko ditugunez, aurretik adierazi ikasleei. Bestalde, metileno urdinak ez digu segurtasun arazorik sortuko, bere propietate antiseptikoak ez baitira kaltegarriak, eta guk koloratzaile bezala egoki erabiliko baitugu.

Agian, lehen frogan ez duzue oso ondo ikusiko, beraz, ekin bigarren ahaleginari.

27. 2. esperimentua: Landare-zelulen behaketa (tipula)

Lan egiteko era: Talde txikian/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 28. eta 29. or.

Liburuko argibideak jarraituz jarduera osatu eta berrikus ezazue.

Esperimentu honetan kuterra erabiltzeak taldearen arabera beldurra eman dezake. Hori erraz saihas dezakezue, kuterra zuek erabiliaz eta ikasle taldeei tipula laminatxoak (ahalik eta finenak) emanez, gainerakoa eurek egin dezaten.

28. 2. esperimentua: Ahozko azalpena

Lan egiteko era: Bakarka/Binaka/Talde txikian/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 29. or.

Ebaluazioa:

• *Hizkuntza*

- <i>Gaitasun nagusia</i>	<i>Ahozko adierazpena</i>
- <i>Helburuak eta irizpideak</i>	5 (5.1, 5.2, 5.3, 5.4, 5.5, 5.6, 5.7)

Aurreko jarduerako esperimentua jendaurrean azaldu beharko dute ikasleek. Horrela, ahozko azalpenak nola prestatu eta burutzen dituzten behatzeko aukera berri bat izango dugu.

Jarduera aurrera eramateko, ikasleek lana banaka, binaka ala talde txikitan burutu beharko duten erabaki beharko dugu lehendabizi. Ebaluaziorako behaketa erraztuko duten baliabideak eta antolaketa ondo pentsatzea ere komeni zaigu. Esate baterako, aurkezpenak bideoz grabatzea oso baliagarria izan daiteke, bai guk ebaluaketa egiteko, baita ikasle guztiekin azalpenak aztertu eta baloratzeko ere.

AHOZKO AZALPENA: "Landare-zelulen behaketa"	
Behaketarako irizpideak	Ebaluazio irizpideak
- Behar izan dituen informazio iturriak erabili ditu.	5.1
- Kalitatez eta kantitatez, informazio egokia hautatu du.	5.2
- Informazioa ondo egituratu du.	5.3
- Azalpena prestatzeko euskarri idatziak (eskema, oharrak, esan beharrekoaren testua...) erabili ditu.	5.1, 5.2, 5.3
- Diskurtso antolatzaileak egoki erabili ditu.	5.4

- Diskurtsoa ulergarri egiteko eta entzuleen arretari eusteko estrategiak (errepikapena, enfasia, galdera erretorikoak, euskarri grafikoak...) erabili ditu.	5.5
- Ideiak argi, zuzen eta jariotasunez adierazi ditu, baliabide prosodikoak (ahoskera, bolumena, doinuera...) eta keinuzkoak (begiradak, eskuen mugimenduak...) egoki erabiliz.	5.6
- Autonomia-maila nahikoa erakutsi du planifikatze eta burutze prozesuetan zehar.	5.7

Mikroskopioaren erabileran trebatzeko, handipen kopuru egokia bilatzeko, behar bezala fokuratzeko... oso ondo datorkigu edozein aitzakia. Zelularen behaketarako proposatzen diren esperimentuez gain, utzi ikasleei denbora edozein gauza behatzeko, ile bat, eltxo baten hegoa... Eta balia itzazue baita ere prestatuta saltzen dituzten gertakinak, nahiz aurreko urteetan egindakoak.

29. 3. esperimentua: Zelulen behaketa (kortxo)

Lan egiteko era: Talde txikian/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 30. or.

Ikaslearen liburuak adierazi bezala ikasleek esperimentua gauzatu eta ondorioak aterako dituzte, gero, talde handian, lana alderatu eta berrikusiz.

Aurreko esperimentuan esan bezala, zuek ikusi kuterra nork erabili behar duen.

30. 4. esperimentua: Zelula erraldoi baten behaketa (arrautza)

Lan egiteko era: Talde txikian/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 30. eta 31. or.

Ikaslearen liburuak adierazi bezala ikasleek esperimentua gauzatu eta ondorioak aterako dituzte, bukatzean, talde handian lana alderatu eta berrikusteko.

Sakontasunetan sartu gabe ezberdintasun bistakoena zelulak ez daukan baina arrautzak baduen babesteko oskola dugu. Organuloak ere ez dira garbi ikusten, gainera arrautza ez da bizitza autonomoa egiteko prestatuta dagoen zelula, ugalketarako prestatutakoa baizik.

31. 5. esperimentua: Bizidun zelulabakarren behaketa (putzuko ura)

Lan egiteko era: Talde txikian/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 31. or.

Ikaslearen liburuak adierazi bezala ikasleek esperimentua gauzatu eta ondorioak aterako dituzte, bukatzean, talde handian lana alderatu eta berrikusteko.

Putzu guztietako urak ez dira agian egokiak izango, batzuk garbiegiak izan baitaitezke. Emaitza ziurtatu nahi badugu, eraman ikasgelara belarrak eta orbelak, deskonposatzaileak baitauzkate, eta uretan utzi denbora batez. Ziurrenik paremezioren

bat edo ikusteko aukera izango duzue. Nola nahi ere, ez erabili binokularrik, ez bait duzue ezer ikusiko, potentzi piska bat duen mikroskopioa baizik.

Esperimentu guztiak bukatuta dituzuenean, talde handian, jar ezazue martxan elkarriketa, esperimentua eta talde-lanaren balorazioa egiteko, alegia, zer moduz moldatu diren, zein zailtasun izan dituzten, nola egin dieten aurre zailtasunoi, esperimentuen helburua bete duten...

32. Bizidun zelulabakarrak eta nutrizio-funtzioa. Eskema

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 32., 33. eta 34. or.

Ebaluazioa:

• <i>Hizkuntza</i>	- <i>Gaitasun nagusia</i>	<i>Irakurmena</i>
	- <i>Helburuak eta irizpideak</i>	<i>9 (9.1, 9.2, 9.4)</i>

Talde handian eta irakaslearen azalpenekin, bizidun zelulabakarren nutrizioari buruzko bi azalpen testuak eta 34. orrialde hasierako jakingarriak irakurri, eta ulertzen saiatuko gara. Irakasle, eman itzazu beharrezko eta egoki diren azalpenak irakurritakoa ulertzeko eta ikasleen zalantzak erantzuteko.

Informazioa laburtzeko eskemei buruz dakigun guztia gogora ekarri ostean, ikasle bakoitzak bere koadernoan, irakurritako informazioa eskema bidez labur dezala.

Honako hau izan daiteke eskeman bildu beharreko informazioa:

ZELULABAKARREN NUTRIZIO-FUNTZIOA (PROZESUA)

→ESKURATU

* ELIKADURA (BIZIDUN) AUTOTROFOA(K)

- ZER DIRA? Elikagaiak ingurutik zuzenari hartzen dituztenak.

* ELIKADURA (BIZIDUN) HETEROTROFOA(K)

- ZER DIRA? Beste bizidun batzuk janez elikatzen direnak.

- SAILKAPENA. Protoktistoeren erreinua.

- ZELULA MOTA. Eukariotoak.

- JANARIA LORTZEKO MODUA.

ZITOSTOMA bidez. Zelula-aho modukoak.

PSEUDOPODO bidez. Sasi hankak.

→ERALDATU. Elikagaiak zelulak bereganatzeko moduko osagai txikiagotan bilakatu.

→ASIMILATU. Elikagaiak eraldatu, zelula osatzeko, berritzeko eta funtzionatzeko baliagarriak izan daitezten.

ESKEMA	
Behaketarako irizpideak	Ebaluazio irizpideak
- Testuko gai orokorra eta azpigaiak identifikatu ditu.	9.1
- Ideia nagusiak eta xehetasun garrantzitsuak identifikatu ditu.	9.1
- Informazio garrantzitsua labur adierazteko giltza-hitz egokiak hautatu ditu.	9.2
- Informazio eskema mota egoki batean antolatu du.	9.4
- Eskeman ondo adierazi du, grafikoki, elementuen arteko erlazioa (kontzeptu, ideia...).	9.4
- Eskeman egoki idatzi ditu hainbat elementu: gai, azpigai edo kontzeptuak letra maiuskulekin; gainerako informazioa letra minuskulekin.	9.4

33. Bizidun zelulabakarren erlazio-funtzioa eta ugalketa

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 34., 35. eta 36. or.

Nutrizio-funtzioarekin egin bezalatsu, talde handian eta irakaslearen laguntzaz, zelulabakarren erlazio-funtzioari buruzko informazioa irakurri eta ulertzen saiatuko gara. Ondoren, ikasleek informazioa euren koadernoan laburbilduko dute eskema batean, azalpenaren ondoren datozen galderen erantzunak lan horretarako baliatuz.

Gauza bera egingo dute bizidun zelulabakarren ugalketari buruzko informazioarekin.

Gogoan izan, jarduera hau ere, testu idatzien esanahi globala sintetizatzearekin zerikusia duten irizpideak ebaluatzeko datuak hartzeko balia dezakegula.

34. Onddo mikroskopikoak

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 37. or.

Ezertan hasi aurretik, gai honen inguruko aurre-ezagutzak aktibatuko ditugu. Gero, taldean, testua irakurri eta zalantzak argituko ditugu. Informazioa taldean argitu eta batez ere, ondoren proposaten diren behaketak; legamiaren ugalketa mikroskopioz eta ogia eginez; jogurtaren hartxidura eta lizunen behaketa, egin itzazue.

35. 6. esperimntua: Legamiaren behaketa. Ahozko azalpenen ulermena

Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian

Materiala: Ikaslearen liburua, 38. or./Irakurgaiak 6, 160. eta 161. or.

Ebaluazioa:

• *Hizkuntza*

<i>- Gaitasun nagusia</i>	<i>Entzutezko ulermena</i>
<i>- Helburuak eta irizpideak</i>	<i>1 (1.1, 1.2, 1.3, 1.4, 1.5)</i>
	<i>2 (2.1, 2.2, 2.3)</i>

Oraingoan, esperimntua burutzeko xehetasun guztiak guk azalduko ditugu ahoz. Ikasleek beraz, arretaz entzun beharko dute, egin beharrekoa ulertu (oharrak jasoz: materialak, urratsak...) eta euren taldekideekin esperimntua gauzatzeari ekin. Bukatzean, hitz egin ezazue esperimntuari buruz, hasieratik bukaerara jarraitutako prozesuan izandako zailtasunez, etab.

Bestetik, esperimntua burutu ondoren, irakurgaietako “Ogia nola egin” azalpen-testuari dagokionez, taldean irakurtzeaz gain, ogia egitearen esperientzia proposatzen dizuegu, irudimena eta hainbat osagairekin ogi mota asko egin baititzakezue, ikastolan bertan (sukaldekoekin koordinatuz), bideragarria baldin bada, jakina, edo bestela, etxeoekin egiteko moduan bideratuz.

Irakaslearen azalpenaren ulermen-maila neurtzeko, esperimntuaren azalpen idatzi eta eskematiko bat (dagoeneko liburuan hainbat eredua agertu dira) eska geniezaieke ikasleei.

Honako testu honetan oinarrituko da irakaslearen azalpena:

6. ESPERIMENTUA: Legamiaren behaketa.

Legamia onddo mota bat da. Ba al dakizue zertarako erabiltzen den? Oraingoan legamia behatuko duzue mikroskopioan. Horretarako jarrai itzazue ondorengo urratsak.

Materiala:

- Legamia (okindegikoa)
- Orratz kirtenduna
- Tanta-kontagailua
- Bizar-xafla
- Porta eta estalkia
- Ur epela edo beroa
- Mikroskopioa

Nola egin:

- 1.-Legamiatik zati handi bat hartu.
- 2.-Zatia bizar-xaflarekin bitan banatu.
- 3.-Orratz kirtendunarekin ebakitako azaleratik legamia pixka bat hartu.
- 4.-Porta baten gainean ur tanta (beroa edo epela badago hobe) jarri eta ondoren legamia.
- 5.-Legamia ur tantan ondo zabaldu eta estalkia jarri.
- 6.-Mikroskopioan beha ezazu.

Atera beharreko ondorioak:

- Nolakoak dira ikusten dituzun zatitxoak?
- Zer ari da gertatzen?

Esperimentua ondo burutuz gero, legamia zelulak ugaltzen ikusiko ditugu. Ugalketa honek zerikusi zuzena du ogia egiten dugunean oreka harrotzearrekin.

IRAKASLEAREN AZALPENEN ULERMENA: “Legamiaren behaketa”	
Behaketarako irizpideak	Ebaluazio irizpideak
- Arreta jarri du, hitzik gabeko erantzunak emanaz, galderak eginez...	1.1
- Ideia nagusiak eta xehetasunak ondo identifikatu eta bereizi ditu.	1.2
- Irakasleak erabilitako hitz, esamolde eta gainerako hizkuntza baliabideen esanahia ondo interpretatu du.	1.3
- Azalpenaren gaia eta komunikazio asmoa identifikatu ditu.	1.4
- Esperimentuaren urrats nagusiak gogoan hartu ditu eta idatziz (azalpen eskematikoa) egoki adierazi ditu.	1.5
- Betebeharrari erantzuteko behar zituen datu zehatzak ondo identifikatu ditu.	2.1
- Oharrak idatzi ditu.	2.2
- Idatzitako oharrak erabili ditu (esperimentuaren azalpen idatzia osatzeko...).	2.3

36. 7. eta 8. esperimentuak: Jogurtaren eta lizunaren behaketa

Lan egiteko era: Talde txikian

Materiala: Ikaslearen liburua, 38. or.

Ebaluazioa:

• Ingurunea	- <i>Gaitasun nagusia</i>	<i>Ikerketa</i>
	- <i>Helburuak eta irizpideak</i>	

Dagoeneko hainbat esperimentu burutu dituzte: idatziz, irudi eskematikoen bidez, edo ahoz adierazitako urratsak jarraituz. Esperientzietan, honezkero, eskarmentu apur bat badute. Oraingoan, betiko taldeetan, bi esperimentu antolatuko dituzte, bat, jogurtaren hartzigarriak behatzeko, eta, bestea, lizunak eta haien hazkuntza behatzeko.

Talde txikitan eztabaidatuz, erabaki dezatela esperimentua nola egin, burutu dezatela eta ondoren, ikasle bakoitzak, bi esperimentu horiek (materiala, prozedura, behaketaren oharrak eta ateratako ondorioak) txosten zientifiko gisa jaso ditzala.

Lizunak ikusteko, fruta, gazta, ogi hezea... oso aproposak dira. Hori bai, behatu ahal izateko, egun batzuetan kanpoan eta estali gabe utzi beharko dituzue eta lizuntzen direnean mikroskopioz behatu.

Jogurta lehenago hartzituko da kalefakzio baten gainean edo bero iturri baten inguruan, epelean, uzten baduzue. Esnea eta jogurtaren nahasketa ez da beharrezkoa anoako ontzietan jartzea, ontzi handi batean ondo geratzen da eta garbitzeko gutxiago izango duzue. Arratsaldean edo eguerdian jarri, eta tenperatura egokian baldin badago, hurrengo goizean gosaritxo egiteko moduan izango zarete.

GIZAKION HARREMANAK

37. Ugalketa eta sexualitatea

Lan egiteko era: Talde txikian/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 39. orrialdeetik 45.era/Irakurgaiak 6, 162. eta 163. or.

Ebaluazioa:

• Ingurunea	- <i>Gaitasun nagusia</i>	<i>Adierazpena</i>
	- <i>Helburuak eta irizpideak</i>	<i>Talde lana</i> <i>Errespetuzko jarrerak</i>

Hirugarren atal honen hasieran, ezinbestean gizakion ugalketari tokia egingo diogu eta bidez batez baita sexualitatearen gaiari ere. Gai hauek ez dira berriak gure ikasleentzako, Txanela 4.6. unitatean hainbat alderdi ikusi baitzituzten, oraingoan gaia osatuagoa azaltzen da, hala ere. Sekuentzia luze honetako helburua hain zuzen ere, horiek gogora ekarriz, sortzen diren gaiaren inguruko zalantza guzti-guztiak argitzea da. Eta baita, giza sexualitatearen inguruan naturaltasun, sentsibilitate, enpatia eta errespetuzko jarrerak garatzea ere.

Hemen duzue Txanela 4ko azken unitatean, besteak beste, ikasleek aurkitu zuten azalpena:

GIZAKIAREN SEXUALITATEA ETA UGALKETA

Animaliek une zehatz batzuetan bakarrik izaten dituzte sexu harremanak, eta kasu askotan urtean behin bakarrik, urtaro jakin batzuetan. Sexu harreman hauen helburua, espezien bizi iraupena ziurtatzea da, hau da, ugalketa da helburu.

Gizakiok ordea ez ditugu sexu harremanak horretarako bakarrik izaten, nahiz eta zenbait harremanen ondorioz hori ere lortzen den. Gizakiok urte osoan zehar kontrola dezakegu noiz izan sexu-harremanak. Harreman hauek, pertsonen eta unearen arabera, honetarako izan daitezke: beste pertsona batzuekin komunikatu eta erlazionatzeko, plazera lortzeko edota ugaltzeko. Beraz, sexualitatea ez da nahi eta nahi ez ugalketarekin lotu behar.

Pertsonekin harreman sexu-afektiboak izatea gizakien izaeraren ezaugarrietariko bat da eta honi sexualitatea deritzo. Sexualitatea, jaiotzaren une beretik agertzen da eta pertsona garatu ahala, sexualitatea ere garatu egingo da; beraz, garai desberdinak dauzka.

Hitz egin ezazue ondorengo galdera hauen inguruan.

- *Oraindik hitz egiten ez dakiten haurrak nola adierazten dituzte beren sentimenduak?*
- *Helduek nola adierazten dizute zenbat maite zaituzten?*
- *Zuk nola adierazten duzu zenbat maite dituzun besteak?*
- *Gurasoek, zure izenez deitu beharrean, erabiltzen al dute hitz bereziren bat? Nola deitzen dizute? Gustuko al duzu horrela deitzea? Zuk horrelako hitzik erabiltzen al duzu? Norekin?*
- *Zergatik uste duzu erabiltzen ditugula horrelako hitzak?*

Hazten goazen heinean, gure gorputza eta besteen gorputza gehiago ezagutzen dugu. Ezagutza honekin batera, identifikazio sexuala ematen da. Hau da, norberaren gorputza besteenarekin konparatzerakoan, neska edo mutila garen konturatzen gara.

Hainbat kasuetan gerta daiteke, norberak bere burua, bere gorputzaren ezaugarri sexuarekin ez identifikatzea. Hau da, neska izanik, mutil bezala sentitzea edo eta alderantziz. Egoera honek, orientazio sexualarekin du zer ikusia, hau da, ni “modu” batekoa naiz, baina “beste modu” batekoa sentitzen naiz. Fenomeno honi, transexualitatea deitzen zaio.

Heltzen doazen eran, gazteek oso gogoko izaten dute elkarrekin hitz egitea, eta baita elkar mimatzea ere. Gainera, oso gogoko izaten dute beren burua ukitu eta laztantzea ere. Garai honetan, gure desiren orientazioa garatzen da. Hau da:

gustatzen zaigunaz ohartzen gara. Norberak bere buruari esan egingo dio: “Niri neskak gustatzen zaizkit”, “niri mutilak gustatzen zaizkit” edota “niri mutilak eta neskak gustatzen zaizkit”.

Sexu bereko pertsonengandik erakarpen sexuala sentitzen denean, homosexualitateaz hitz egiten dugu. Eta norberarena ez den sexua duten pertsonetako erakarpena sentitzen denean, heterosexualitateaz.. Bisexualitate hitza berriz,, sexu bateko nahiz bestearekiko desioa sentitzen den kasuak aipatzeko erabiltzen dugu.

Garrantzitsuena zera da: norbanako bakoitza bere harreman sexu-afektiboekin gustura bizitzea beste pertsonen harremanak errespetatuz. Gizabanako bakoitzak nortasun desberdina du, eta beraz, sexualitate ezberdina. Baina pertsona orok eskubide berdinak ditugu eta errespetu osoa merezi dugu. Pertsona batekin edozein harreman mota izateko, ezinbestekoa, norberak nahi izatea da. Hala ez balitz, bortxaketa baten aurrean aurkituko ginatke eta hau salatu beharreko egoera da.

Sexualitatea gorputzarekin eta sexu-organoekin lotuta dago eta baita gozamenarekin, beste pertsona batzuen ondoan egotearekin, beraiekin hitz egitearekin eta baita ondo pasatzearekin ere.

Sexu-organoak eta beste gorputz atalak laztantzeari masturbazio deritzo. Masturbazioa norbera bere gorputza ezagutu eta maitatzeko eta norbere gorputzaz gozatzeko modu bat da.

Jarduera burutzeko jarrai itzazue liburuko aginduak. Irakasle, sekuentzia luzea da, beraz, dinamikek eta beharrianek agindu bezala kudeatu ezazu.

Irakurgaiei dagokion testua talde handian eta irakaslearen azalpenekin batera irakurtzea proposatzen dizuegu.

Bestetik, gaur egun gure gizartean eginiko estatistiketan sexu harreman bidezko gaixotasun eta adoleszentzia garaiko haurdunaldi kopurua kontuan hartuta, gure ikasleek gai hauen inguruko ahalik eta informazio zehatzena eta zuzenena izatearen aldekoa da Txanela. Hori dela eta, preserbatiboaren erabilpenari buruzko azalpenak irakasleak gelan bertan ematea proposatzen dizuegu. Sexualitate eta afektibitate gaietan espezializatutako norbait ezagutu (sexologo, mediku, ginekologo...) eta gonbidatzeko aukera izanez gero, baliatu ezazue aukera hori ere.

38. Ipuina irakurri aurretik: “Hau ezin zait niri gertatu”

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 46. or./Irakurgaiak 6, 164. orrialdetik 168.era

Ebaluazioa:

• <i>Hizkuntza</i>	- <i>Gaitasun nagusia</i>	<i>Irakurmena</i>
	- <i>Helburuak eta irizpideak</i>	7 (7.2, 7.4)

Testu bati gainbegiratu eman eta zenbait ezaugarri formaletan oinarrituta, bere edukiari buruzko hipotesiak egitea, aldiro eta sistematikoki landu dugun ulermen-estrategia izan da. Jarduera honekin ikasleak hipotesi egoki eta koherenteak egiteko gai diren ikus dezakegu.

Ikaslearen liburuan dituzten galderen inguruan hipotesiak egin eta koadernoan idazteko aginduko diegu ikasleei, egindako hipotesiak eta ateratako ondorioak arrazoitzeko, hau da, zertan oinarritzen dituzten azaltzeko eskatuz.

Bakarkako lana egin ondoren, talde handian elkarrizketa egingo dugu horien guztien gainean hitz egiteko.

IRAKUR-HIPOTESIAK	
Behaketarako irizpideak	Ebaluazio irizpideak
- Testu-mota identifikatzen du.	7.2
- Testu-motari dagozkion hainbat elementuri (protagonista, lehenengo gertaera...) buruzko hipotesi egokiak egiten ditu.	7.2
- Irudietan oinarrituta, testuaren edukiari buruzko (gertaerak, amaiera...) aurrerapen koherenteak egiteko gai da.	7.4

39. Ipuinaren ulermen sekuentzia

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 46. or./Irakurgaiak 6, 164. orrialdetik 168.era/13. lan-koaderno, 48., 49. eta 50. or.

Ebaluazioa:

• Hizkuntza	- Gaitasun nagusia	Irakurmena
	- Helburuak eta irizpideak	6 (6.1) 7 (7.3, 7.6)

Irakurketaren ebaluaziorako, bi alderdiri errepara diezaiokegu jarduera honetan: isileko irakurketari eta irakurritakoaren ulermenari.

Isileko irakurketari dagokionez, talde handian, liburuko oharrak irakurriz, irakurketa mota honen inguruko hainbat ezaugarri gogora ekarriko ditugu. Ondoren, ikasleek bakarka, irakurgaietako ipuina irakurriko dute. Ebaluazio lana errazteko, ikasleak binaka jar ditzakegu elkarren behaketa egin dezaten (ikus: 6.3 unitateko 29. orrialdeko proposamena).

ISILEKO IRAKURKETA: “Hau ezin zait niri gertatu”	
Behaketarako irizpideak	Ebaluazio irizpideak
- Ez du ahopean hitzak ahoskatuz irakurtzen.	6.1
- Ez du ahoa mugitzen, irakurritakoa ahoskatzen ariko balitz bezala.	
- Ez ditu irakurtzen ari den hitzak seinalatzen hatzarekin, arkatzarekin edo beste zerbaitekin.	
- Ez da sarritan gelditzen, eta ez du atzera jotzen aurretik irakurritakoa berriz irakurtzeko.	
- Begiak ez ditu testutik altxatzen beste norabait begiratzeko, arreta nahikoarekin ariko ez balitz bezala.	
- Ez du motelegi irakurtzen.	
Bestelako oharrak:	

Irakurritakoaren ulermen-maila behatzeko, berriz, lan-koadernoko galdetegia erabil dezakegu.

LAN-KOADERNOA: “Irakurritakoa gogoratzen eta interpretatzen”	
Erantzunak	Ebaluazio irizpideak
1) a: Luis eta Marian; b: Marian eta Sergio; c: Sergio eta Josetxo	7.6
2) b	7.6
3) a	7.6
4) b	7.6
5) c	7.6
6) b, d, e eta f	7.6
7) a	7.3
8) c	7.3
9) b	7.3
10) b	7.3
11) a	7.3
12) c	7.3
13) c	7.3
14) b	7.6

40. Ipuina irakurri ondoren

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 47. or.

Ebaluazioa:

• Hizkuntza

- Gaitasun nagusia	Irakurmena
- Helburuak eta irizpideak	7 (7.7) 9 (9.2, 9.3)

Talde handian jarduera irakurri eta laburpenak egiteko teknikari buruzko oharrak gogora ekarriko ditugu. Ondoren, ikasleek “Hau ezin zait niri gertatu” irakurgaiaren laburpena idatziko dute euren koadernoan. Jarraian, irakurgaietan nabarmentzeko moduko gai bat aukeratu beharko dute, zergatik nabarmentzen duten ere idatziz justifikatuz eta laburpenari erantsiz. Bukatzean, elkarrizketa sor daiteke, ikasleek berezitat hartutako gaien inguruan hitz egiteko.

Aurrera jarraitu aurretik, ikasle bakoitzari ipuinaren laburpena ahoz kontatzeko eskatuz gero (horretarako modurik egonez gero, behintzat), 15. helburuari dagokion 2. irizpidea behatzeko aukera ere izan dezakegu.

LABURPENA, IRITZI KRITIKOA: “Hau ezin zait niri gertatu”	
Behaketarako irizpideak	Ebaluazio irizpideak
- Laburpenak ipuinaren elementu garrantzitsuenen (pertsonea nagusiak, arazoa, gertaera nagusiak, amaiera) berri ematen du.	9.2
- Ipuinaren elementu nagusiak adierazten dituzten esaldiak modu koherentean eta ondo kohesionatuta adierazten ditu.	9.3
- Laburpena zuzentasun-maila nahikoarekin idatzita dago.	9.3
- Ipuinean idazleak erabilitako baliabideen inguruan edo aipatzen diren gaien inguruan, iritzia azaltzen du eta modu koherentean arrazoitzen du.	7.7

41. Txiste kontaketa

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 48. or./Irakurgaiak 6, 169., 170. eta 171. or.

Ebaluazioa:

• Hizkuntza

- Gaitasun nagusia	Idatziaren ulermena, Ahozko adierazpena
- Helburuak eta irizpideak	5 (5.2, 5.5, 5.6) 7 (7.6) 15 (15.2)

Talde handian liburuko jarduera irakurtzeari ekingo diogu. Ondoren, ikasle bakoitzak liburuak adierazitako urratsak jarraituz, bere zereginari ekingo dio.

Txiste kontaketa hau hizkuntzako 15. helburuari dagokion 2. irizpidea ebaluatzeko balia daiteke, hau da, narrazio testuak (txiste eta pasadizoak, kasu honetan) jarioetasun eta adierazkortasun nahikoarekin kontatzeko gaitasuna.

TXISTE ETA PASADIZO KONTAKETA	
Behaketarako irizpideak	Ebaluazio irizpideak
- Testuaren eduki nagusia, eta bereziki umore-ukitua ematen dizkion xehetasunak, ulertu ditu.	7.6
- Kontaketa ulergarri egiteko ezinbestekoak diren ideiak adierazi ditu.	5.2
- Alferrikako azalpenak saihestu ditu.	5.2
- Kontaketa ulergarri egiteko eta arretari eusteko estrategia egokiak erabili ditu: errepikapena, enfasia...	5.5
- Bere hitzak erabiliz, eta buruz ikasitakoak naturaltasunez adieraziz egin du kontaketa.	5.6
- Argi, zuzen eta jarioasunez egin du kontaketa.	5.6
- Ahotsaren baliabide adierazkorrak egoki erabili ditu.	5.6
- Gorputzaren baliabide adierazkorrak egoki erabili ditu.	5.6

42. Ipuin idazketa

Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian/Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 48. or.

Ebaluazioa:

• *Hizkuntza*

<i>- Gaitasun nagusia</i>	<i>Idatzizko adierazpena</i>
<i>- Helburuak eta irizpideak</i>	<i>10 (10.3, 10.4, 10.5) 11 (11.1, 11.2, 11.3, 11.4, 11.5, 11.6, 11.7, 11.8, 11.9, 11.10)</i>

Talde handian, jarduera irakurriko dugu. Ondoren, Haur Hezkuntzako ikasleei egin beharreko aurkezpena aitzakiatzat hartuta, Txanelarekin bizi izandako hainbat pasadizo gogora ekarri eta kontatzeari ekingo diogu, talde handian, nahiz talde txikitan antolatuta. Testuinguru horretan finkatuko dugu idatzi beharko duten ipuina: norberak bizi izandako pasadizoetan oinarritutako ipuin bat idatzi beharko dute, imajinazioarekin aberastuz, eta hartzaileak Haur Hezkuntzako azken urteko ikasleak izango direla kontuan izanik. Gero, ikasle bakoitzak bere lana planifikatu eta lehenengo zirriborroa idazteari ekingo dio. Ipuinaren berrikuspen lanak egin aurretik, ikasleek, lan-koadernoko jarduera (ikus 43. jarduera) osatzeari ekingo diote, geroko lanean oso lagungarria izango baitzaie. Bukatzean, ipuina berrikusi eta edizio lanak egingo dituzte.

Proiektuari begira, jarduera hau garatzen hasi aurretik, taldean, hainbat erabaki hartzea proposatzen dizuegu, besteak beste, zein den ipuinaren helburua, nola editatuko den... Gogoan izan, erabaki hauek lanaren izaera alda dezaketela, beraz, ez utzi azken unerako.

Bestetik, ez dugu ahaztuko, ipuinak eta lan-koadernoko ariketek (ikus 43. jarduera) hizkuntzako hainbat helbururi dagozkion irizpideak behatu eta ebaluatzeko aukera ematen digutela.

Bukatzeo, esan, CD-ROMean ere, morfosintaxia eta ortografia lantzeko hainbat ariketa aurkituko dituzuela.

IPUIN IDAZKETA: “Bizipen batean oinarritutako ipuina”	
Behaketarako irizpideak	Ebaluazio irizpideak
- Sormen gaitasuna erakutsi du bere bizipenetan oinarritutako ideiak asmatutako ideia berriekin osatuz eta aberastuz.	10.3
- Idazten hasi aurretik, eskema batean bildu ditu ipuinean adierazi nahi dituen ideia nagusienak.	10.4
- Eskemak ipuineko elementu nagusienak eta horien antolaketa (jarraitu nahi duen ordena edo egitura) islatzen ditu.	10.4
- Aurretik hartutako erabakiak eta egindako planak (eskema...) jarraitu ditu eta horiek testuan islatu ditu.	10.5
- Ekoizpen prozesuaren uneren batean (planifikazioan, berrikusketan...) talde-lanean burutzeko zereginak planteatu direnean elkarlanean modu aktiboan jardun du.	10.6, 11.11
- Ulegarria izan dadin beharrezko osagaiak eta ideiak biltzen ditu ipuinak.	11.1
- Ipuin bati dagozkion osagai eta atal konbentzionalak jasotzen ditu testuak.	11.5
- Ideiak modu koherentean (ondo ordenatuta) adierazi ditu.	11.6
- Ideiak paragrafotan ongi bildu ditu.	11.6
- Kohesio elementuak (puntuazio markak, testu antolatzaileak...) ondo erabili ditu.	11.7
- Zuzentasun-maila onargarria erakutsi du: landutako hizkuntza egiturak zuzen erabili ditu; landutako arau ortografikoak bete ditu; hiztegia kontsultatuz zuzentzeko moduko akats ortografikorik ez du egin...	11.8
- Hizkuntza baliabideak (lexikoa, joskera...) egoki erabili ditu.	11.2
- Hizkuntza aberastasuna eta estilo pertsonala adierazten duten baliabideak (lexiko aberatsa, esamoldeak, sintaxi aberatsa...) erabili ditu.	11.9
- Hainbat adierazpen baliabide (metaforak, konparaketak, pertsonifikazioak...) erabiltzeko ahalegina egin du.	11.3
- Testua behar beste berrikusteko eta hobetzeko jarrera, ekimena eta autonomia-maila nahikoa erakutsi du.	11.10
- Azken bertsioa egoki eta zuzen aurkeztu du: kaligrafia zuzen eta irakurgarria; testuaren banaketa egokia orrialdean; letra tipo eta irudi egokiak...	11.4

43. Hizkuntzaren sistema II

Lan egiteko era: Bakarka

Materiala: 13. lan-koadernoan, 51. orrialdetik 56.era/CD-ROMa

Ebaluazioa:

• <i>Hizkuntza</i>	- <i>Gaitasun nagusia</i>	<i>Hizkuntzari buruzko hausnarketa</i>
	- <i>Helburuak eta irizpideak</i>	<i>12 (12.1, 12.2, 12.3, 12.4, 12.5, 12.6)</i>

Gure ikasleek euren hizkuntza egoki eta zuzen erabiltzen ikasteko hainbat ariketa egin izan dituzte urte hauetan zehar. Ikasitakoak gogora ekartzen laguntzeko, ikasleek, lan-koadernoko sekuentzia bakarka osatzeari ekingo diote. Lan hau oso baliagarria gertatuko zaie, ondoren, aurreko jardueran ekoiztutako ipuinaren berrikusketa eta zuzenketa egiteko orduan.

Jarduera honetako ariketak, nahiz geuk osatutako antzeko ariketak, hizkuntza sistemaren ezagutza, eta hizkuntza zuzen eta egoki erabiltzen duten ebaluatze balia ditzakegu. Ebaluazio hori osatzeko, beharrezkotzat joko bazenute, diktaketaren bat ere egin dezakezue.

CD-ROMean ere mota honetako hainbat ariketa dituzue beharra duten ikasleak treba daitezten.

LAN-KOADERNOA: “Hizkuntzaz eta hizkuntzaren erabileraz II”	
Erantzunak	Ebaluazio irizpideak
1) <i>Txikitatik, nintzanean, lehenengo, ezintasun, hartan, hala, zidan, ume, harako, hura</i>	12.1, 12.4
2) a: ikastea; b: sartu; c: aurrean, soro; d: Orri; e: ezazu; f: atsegina; g: Txorizo; h: itxi	12.2
3) a: ninduen; b: nau; c: dit; d: zintudan; e: zenidan	12.2, 12.5
4) Ezabatu beharrekoak, a: Parkean elkarri agurtu diogu. b: Dago liburutegian hiztegia. c: Ere daude beste gauza asko. d: Laguntzen didazu? e: Txoria balitzake, hegan egingo zuen.	12.2, 12.5
5) a: ...egin dugu; b: ...egin nuen; c: ...ikusi nuen; d: ...ikusi zuen; e: ...zen; f: k ...dira; g: ...nintzen	12.1, 12.3
6) a: Mattin Triku (subj.), zebilen (ad.); b: (Hura) (subj.), ateratzen zen (ad.); c: galduta zebilen ipurtargi bat (subj.), hurbildu zitzaion (ad.); d: Etxepeko parkeko kaleargiak (subj.), itzali egin ziren (ad.); e: (Haiek) (subj.), zetozen (ad.)	12.1
7) a: 3; b: 5; c: 1; d: 4; e: 2	12.2
8) <i>Tim dut izena eta ia zazpi urte ditut. / Oso goibel egon ohi naiz (egoten naiz), txit gizona bainaiz. Gelako gizenena! Eta txikia naiz gainera. Gelako txikiena! Gainontzeko haurrek “txerri txiki” deitzen didate eta baita “Potolo” ere. / Ez didate asmo txarrean esaten, baina (ni) su ta gar jartzen naiz horrela deitzen didatenean.</i>	12.3
9) Ezabatu beharrekoak, a: Nikolasa; b: hiria; c: postari; d: motelegia; e: berak; f: Herrititik; g: belakabelatarrak; h: Nikolasak; i: guztieri	12.2, 14.4
10) a: Lagunek esan didate. Unai esan dit. b: Irakaslearengana goaz. Bulegora goaz.	12.2, 12.4, 12.5
11) a: Mireni; b: gurasoek; c: katua; d: gezurrik; e: herritan; f: bietan; g: Lagunei	12.2
12) Adibidez, a: –Baina mesede txiki bat besterik ez! b: Eta andregaiarengana joan eta horrela esan zion: c: –Ez zait ez zait antigoalekoa izan, Luis –esan zion Marianek–. Gonazalea! Gaur egungo neskok... d: “Hau ezin zait niri gertatu”, pentsatu nuen.	12.1
13) Clotairek ere hartu du bere koaderno, esku bakarrez, noski. –Lagunduko diat –esan dio Joakinek, bere aldamenekoak. –Nork eskatu dik laguntza? –erantzun dio Clotairek. Handik pixka batera errekreorako kanpaiak jo du. Clotaire jaiki da lehenengo. –Beharbada hobe litzateke –esan du andereñoak– jolastera jaitziko ez bazina beso horrekin. –Medikuak esan du airea hartu behar dudala –erantzun dio Clotairek. Andereñoak, “tira ba”, esan eta lehenengo irteteko agindu dio Clotairek, minik har dezan.	12.1

14) a: <i>d'Artagnan</i> ; b: <i>d'Artagnan</i> ; c: <i>Porthos</i> ; d: <i>Porthos</i> ; e: <i>Athos</i> ; f: <i>Athos</i> ; g: <i>Athos</i> ; h: <i>Porthos eta d'Artagnan</i>	12.1
15) Sildabiara: <i>c (herrialde horretara)</i> ; irakaslearekin: <i>a (berarekin)</i> ; irakaslearen: <i>i (bere)</i> ; Irakaslearekin: <i>j (agurearekin)</i> ; Tintin: <i>e (mukitsu hori)</i> ; Sildabiara: <i>g (bere helmugara)</i>	12.2
Behaketarako beste irizpide batzuk	
- Aztertutako hizkuntz-elementuak zuzen eta egoki erabili ditu bere ekoizpen idatzian (ipuina). - Autonomia nahikoa erakutsi du aztertutako hizkuntz-elementuen erabilera zuzena eta egokia bere testu idatzian (ipuina) berrikusteko.	12.6

44. Hitz-errota: Sexismoa

Lan egiteko era: Talde txikian/Talde handian

Materiala: Irakaslearen liburua, 49. or./Irakurgaiak 6, 172. eta 173. or.

Ebaluazioa:

• *Hizkuntza*

- Gaitasun nagusia	Ahozko adierazpena
- Helburuak eta irizpideak	3 (3.1, 3.2, 3.3, 3.4, 3.5, 3.6, 3.7, 3.8, 3.9) 4 (4.1, 4.2, 4.3, 4.4)

Unitate honetan, ikasleek talde-elkarrizketei eta eztabaidei buruz ikasitakoak praktikan jartzeko aukera izan dezaten, liburuak adierazitako urratsak jarraitu eta sexismoa edo genero-diskriminazioa mintzagai izango duen hitz-errota martxan jarriko dugu.

Jarduera hau, elkarrizketa eta eztabaidekin zerikusia duten ebaluazio irizpideei buruzko azken datu batzuk jasotzeko erabil dezakegu.

Datu bilketarako orain arte eskainitako tresneki, eta egoeretan jaso dugun informazioa erabilia, honako irizpideen arabera egin genezake ikasle bakoitzaren azken ebaluazioa.

TALDE-ELKARRIZKETA ETA EZTABAIDA	
Behaketarako irizpideak	Ebaluazio irizpideak
- Prestatze-fasean taldekideekin elkarlanean aritu da.	3.1
- Bere parte-hartzea prestatu du: informazioa lortu du, idatzizko oharrak prestatu ditu...	3.1
- Talde-elkarrizketaren burutze-fasean egokitu zaizkion erantzukizunak (bozeramaile, moderatzaile, hizlari...) hartu eta bete ditu.	3.1
- Bere kabuz parte hartu du, inork behartu gabe, eta ekarpen pertsonalak egiteko ekimena erakutsi du.	3.2
- Gaiarekin eta elkarrizketaren hariarekin zerikusia duten informazioak eta iritziak bakarrik azaldu ditu.	3.3
- Gaiarekiko bere ikuspegi pertsonala azaldu eta arrazoitu du.	3.4
- Besteek esandakoari buruzko bere desadostasuna edo adostasuna azaldu eta arrazoitu du.	3.4

- Berak esandakoari buruzko behar beste azalpen argigarri, zehaztapen eta informazio gehigarri eman ditu.	3.5
- Bere parte-hartzeak (galderak, iruzkinak...) elkarrizketaren hariari eta momentuari egokitu dizkio.	3.6
- Ondo interpretatu ditu solaskideek erabilitako ez-hitzezko baliabide adierazkorak (jarrera, ironia, keinuak, hitzen zentzu bikoitza...).	3.7
- Jariotasunez aritu da, adierazi nahi duena argi eta eta erraz adieraziz.	3.8, 4.1
- Erregistro (lexikoa, egoerari egokitutako esamoldeak...) egokia erabili du.	3.8, 4.2
- Baliabide prosodikoak (bolumena, ahoskera, doinuera...) eta keinuzkoak (aurpegiko keinuak, gorputz jarrera eta mugimenduak...) egoki erabili ditu.	3.8
- Arrauak jarraitu ditu (besteei arreta, hizketa-txanda zaintzea, besteen hitz eta iritziekiko errespetua...).	3.9
- Bereizkeria adierazten duten espresabideak baztertu ditu.	3.9, 4.4
- Zuzentasun eta hizkuntz-aberastasun nahikoarekin aritu da.	4.3

45. Artelanak

Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian

Materiala: Ikaslearen liburua, 50. eta 51. or.

Sexismoarekin jarraituz, zoritxarrez aitortu beharra dago, emakumea, beste arlotan bezalaxe, arte-munduan ere diskriminatuta izan dela historian zehar. Ikaslearen liburuan daukagun emakumeak ere, hasiera batean ez zuen jaso errekonozimendurik, gerora arte munduan zegokion tokia lortu bazuen ere. Hainbat emakume dira horren adibide, bai zientzia munduan eta baita artean ere. Zenbaitetan, ezizenez ere baliatu behar izan zuten emakumeek beren lanak jendaurrera eramateko.

Bestalde, Frida Kahloren biografia sufrimentuak markatu zuen, honi buruzko informazioa ere bila dezakezue (arte-liburu, internet, zein bestelako informazio iturrietan) eta bere bizitza baldintzatu zuten eta bere obran present dauden bizpenen inguruko elkarrizketatxoa burutu dezakezue.

Haur txikiei Txanela aurkezteko baliagarri izan dakiguken beste euskarri bat horma-irudia edo murala izan daiteke. Mexikar muralistek gertaeren narrazioa egiten zuten muralen bidez eta artea eta historia herriko jendearengana hurbildu zituzten era horretan. Guk ere Txanelan bizi izandakoaren narrazioa egin diezaiekegu muralaren bidez haur txikiei. Horretarako, hainbat teknika erabil ditzakegu, pintura, argazki muntaia, marrazkia, kollagea... Ikasleek adostu beharko dute zer eta nola adierazi nahi duten eta baita ere talde osoak sortuko duen horma-irudi bakarra edota talde txikitan mural txikiagoak eginez azalduko duten adierazi nahi duten hori.

46. Proiektua gauzaten: DBHkoei elkarrizketa

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 52. eta 53. or.

Ebaluazioa:

• *Hizkuntza*

- <i>Gaitasun nagusia</i> - <i>Helburuak eta irizpideak</i>	<i>Hizkuntzari buruzko hausnarketa</i> 13 (13.1, 13.2, 13.3) 14 (14.1, 14.2)
- <i>Gaitasun nagusia</i> - <i>Helburuak eta irizpideak</i>	<i>Idatzizko adierazpena</i>

Lehen proiektua burutzeko ordua iritsi da, hau da, ikasleek DBHn egiten denaren berri izan eta etapa horri buruz izan ditzaketen zalantza guztiak argitzeko ordua.

Proiektua gauzatzeko jarrai itzazue liburuan bertan adierazten diren urratsak eta proiektua bukatzean ez galdu aukera proiektuari buruz hitz egiteko eta hura baloratzeko.

Hizkuntz-helburuen ebaluaziorako bi une edo aukera nabarmendu behar dira. Batetik, DBHn hizkuntzek izango duten trataera eta presentzia aztertzen den unea, hizkuntzaren gizarte dimentsioarekin zerikusia duten helburuak (13 eta 14.ak) ebaluatzeko erabil daiteke. Bestetik, idatzizko adierazpena ebaluatzeko aukera berri bat sortuko da ikasleek, beraien asmoen berri emateko DBHkoei idatzizko dieten eskutitza baliatuz.

Aipatutako lehenengo hizkuntz edukiari dagokionez, hor beheko koadroan bilduta daude ebaluaziorako irizpideak. "Hiztunak eta hizkuntzak" ataleko galdetegitik abiatuta, galdetegi edo jarduera berrietan, edo ikasturtean zehar egindako beste behaketa batzuetan, oinarritu beharko gara ikasle bakoitzaren lorpen-maila baloratzeko

HIZTUNAK ETA HIZKUNTZAK	
Behaketarako irizpideak	Ebaluazio irizpideak
- Euskal Herrian, erabilpen eremu desberdinetan hedatuenak dauden hizkuntzak (pertsoneko harremanetan euskara, gaztelania nahiz frantsesa; irakaskuntzan...) zein diren badaki.	13.1
- Aztertutako egoera eta kontzeptu soziolinguistiko nagusienak (hizkuntza nagusia, hizkuntza handiak eta txikiak, eleaniztasuna...) deskribatzen badaki.	13.2
- Hurbileko hizkuntza errealitateari buruzko bere ikuspegia azaldu eta arrazoitzen du, errealitate nahiz iritzi guztiekiko errespetua erakutsiz eta aurriritziak baztertuz.	13.2
- Euskararen oinarritzko aldaerak (euskara batua eta euskalkiak...) identifikatzeko gai da, bakoitzari bere balio komunikatiboa aitortuz.	13.3
- Bere ohiko jardueran euskarari lehentasuna ematen dio.	14.1
- Jarrera aktiboa erakusten du euskararen erabilera, normalizazioa, promozioa eta transmisioa lantzen duten jardueretan.	14.2

Eskutitzaren idazketari dagokionez, honako hau da ikasleei proposatzen zaien zeregin komunikatiboa: DBHko ikasleei beren asmoen berri emanez (etapari buruzko informazioa eskuratzeko eurekin elkarrizketa bat izateko eskaria egitea, eta horretarako hitzordua jartzea da helburua), eskutitz bat idatzi beharko dute. Ikasle bakoitzak bere testua idatz dezake, horretarako idazte prozesu osoa behar bezala jarraituz, eta gero, testu guztien artean bakar bat hauta daiteke, beharrezkotzat jotzen diren osaketa eta zuzenketekin hartzaileei helarazteko.

Ikasle bakoitzak idatzitako testuak erabil ditzakegu idatzizko komunikazio gaitasunaren ebaluazioa osatzeko. Horretarako, 42. jardueran ipuinaren inguruan aurkeztutako behaketarako irizpideak erabil ditzakegu, beharrezko egokitzapenak eginda.

47. Proiektua gauzatzeko: Txanelaren aurkezpena

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 54. eta 55. or.

Unitate honetako bigarren proiektua martxan jarri aurretik, talde handian, bi orrialde horietan zehar adierazten diren ideietako bakoitzaren inguruan gogoratzen duguna aipatzeko talde elkarrizketa egingo dugu. Ideia horiek beste makina bat ideia ekarriko dizkigute gogora, horiei ere tokia egin iezaiezue berbaldian. Ondoren, proiektuaren inguruko erabakiak hartzeari ekingo diogu, hau da, nolako proiektua egin, zer kontatu eta nola aurkeztu, berandu baino lehen txikiei aurkezpena egiteko.

Aurkezpena egin ostean har ezazue tarte bat proiektua bere osotasunean baloratzeko.

48. Sintesia

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 56. eta 57. or./13. lan-koaderno, 57., 58. eta 59. or.

Sintesi orri hauek, hainbat alderdi baloratzeko aukera emango digute. Batetik, unitatean bertan egindako lan batzuk, eta bestetik, Txanelan egindako ibilbide luzean ikasitako eta egindako aurrerapenak.

Gaiari erreferentzia egiten dioten ariketak ikasleak bakarka bere koadernoan erantzun beharko ditu.

Txanelan egindako ibilbidea freskatzeari dagozkion jarduerak talde txikitan nahiz talde handian burutu ditzakezue. Ikasitakoari buruzko norberaren balorazioa, lan-koadernoko jarduera, alegia, ikasleek bakarka osatuko dute eta talde handian berrikusiko dugu.

Irakasle, lan interesgarria eta esanguratsua izan daiteke, zuk jasotako ebaluaziorako datuak, ikasleek euren auto-ebaluazioan jasotakoekin alderatzea, eta ikasle bakoitzarekin honen gaineko elkarrizketatxo izatea.

49. Bueltako komikia. Kanta-kantari

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 58. eta 59. or./CDa, 37. eta 36. pistak

Ebaluazioa:

• Hizkuntza

- Gaitasun nagusia	Entzutezko ulermena, Idatziaren ulermena, Ahozko adierazpena
- Helburuak eta irizpideak	1 (1.1, 1.3, 1.4) 7 (7.1, 7.3, 7.6, 7.7) 15 (15.1)

Tarte bat emango diegu ikasleei abestia irakurri eta irudiari beha diezaioten. Ondoren, talde handian, elkarrizketa sortuko dugu abestiaren letraren inguruan eta baita irudiko pertsonaia eta idatzizko (*beti aurrera joateaaa...*) nahiz elementu grafikoen (sinboloen esanahiari (ortzadarra, itsasontzi handia...) inguruan hitz egiteko ere. Bukatzean, letra aurrean dugula abestia kantatzeari ekingo diogu.

Jarraian, CDko “*Topa dagigun*” abestia entzungo dugu eta haren letrak adierazitakoari erreparatu ostean, kantatzeari ekingo diogu. Abesti hau ikas dezakegu, kurtsu bukaerako festan elkarrekin abesteko.

Komikiak nahiz “*Agur, Txanela*” abestiak azken urteetan egindako bidari ematen dioten erreparoa aprobetxatuz, Lehen Hezkuntzan zehar Txanelako unitateetan agertu eta ikasitako abestiak gogora ekartzen eta abesten ere saia gaitzke.

Abestien inguruko jarduerak hainbat ebaluazio irizpide behatzeko balia daitezke:

KANTAK GOGORA EKARRI, ERREZITATU, ABESTU	
Behaketarako irizpideak	Ebaluazio irizpideak
- Irakurritako abestien eduki nagusia (komunikazio asmoa, gaia, ideia nagusiak...) ulertzen ditu.	7.1, 7.3, 7.6, 7.7
- Entzundako abestien eduki nagusia (komunikazio asmoa, gaia, ideia nagusiak...) ulertzen ditu.	1.1, 1.3, 1.4
- Abestiak buruz ikasten ditu.	15.1
- Jariotasun eta adierazkortasun nahikoarekin abesten ditu ikasitako abestiak.	15.1
- Gogotsu parte hartzen du abestien inguruan proposatzen diren jardueretan.	15.1
- ...	

50. Oporrak: Liburu artean

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 60. or.

Ebaluazioa:

• Hizkuntza

- Gaitasun nagusia	Entzutezko ulermena, Idatziaren ulermena, Ahozko adierazpena
- Helburuak eta irizpideak	16 (16.1, 16.2, 16.3)

Bukatu dugu Txanela, eta orain, unitateko azken orrialde honetan udako oporrei begira jarriko gara. Udako oporrak gustuko liburuak irakurtzeko proposak dira. Irakurzaletasuna sustatzearen alde ikasle bakoitzak bere gustuen arabera hainbat libururen artean bat edo beste aukeratzea litzateke komenigarriena eta ez liburu jakin bat derrigortuta irakurri behar izatea. Hori dela eta, gelan, ikasleei, euren adinekoentzako proposak diren hainbat libururen aurkezpena egitea proposatzen dizuegu. Aurkezpenean liburua erakutsi eta zertaz doan aipatu daiteke. Irakasle, liburu batzuen aurkezpena zuk zeuk egin dezakezu, eta zure aurkezpena eredutzat hartuta, ikasle bakoitzak bere kontura irakurritako eta gustuko izan duen liburuarena egin dezake gelakideen artean. Ikasleei, liburua erakutsi eta gaia adierazteaz gain, liburu hori hain gustuko izatearen arrazoia ere aipatzeko eskatuko diegu.

Jarduera edo une hau urtean zehar, ikasgelan nahiz ikastolan, irakurzaletasuna sustatzeko garatu den programaren baitan kokatu behar da, eta hari amaiera emateko erabil daiteke. Oporretarako liburuak aukeratzearen aitzakian hainbat egunetarako ekintzak antola daitezke: gelako, nahiz ikastolako liburutegien inguruko ekintzak (liburu berrantolaketa eta txukunketa...), urtean zehar irakurritakoari buruzko elkarrizketak, burututako ekintzen eta lanen inguruko erakusketa (idazleen bisitak, JULL kanpaina...) etab.

Urtean zehar jasotako datuekin, eta azken jardueran hauetan egin ditzakegun behaketekin, literatura atseginerako iturri modura erabiltzeari buruzko helburuaren ebaluaketa egin dezakegu.

IRAKURZALETASUNA	
Behaketarako irizpideak	Ebaluazio irizpideak
- Ikaslearen liburuak, idazleak, irakur-esperientziak, etab. gaitzak hartuta burutzen diren elkarrizketetan aktiboki parte hartzen du bere bizipenak eta ikuspuntuak azalduz.	16.1
- Irakurritakoari buruzko iritzia azaltzen eta justifikatzen du, ahoz nahiz idatzi.	16.2
- Ohikotasunez irakurtzen du.	16.3

51. Oporrak: Bertsoz

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 60. or./Irakurgaiak 6, 174. eta 175. or.

Ebaluazioa:

• <i>Hizkuntza</i>	- <i>Gaitasun nagusia</i>	<i>Entzutezko ulermena, Idatziaren ulermena, Ahozko adierazpena</i>
	- <i>Helburuak eta irizpideak</i>	7 (7.2) 15 (15.1, 15.3)

Eta uda... festa eta parranda garaia ere bada. Aitzakia honekin, irakurgaietako bi bertsoak irakurriko ditugu. Ondoren, lagun arteko elkarrizketa sortuko dugu oporretako planen berri elkari kontatzeko.

Musikako lan-koadernoa

SEIGARREN UNITATE DIDAKTIKOA

6.1. Melodien konpontzailea

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Musikako lan-koadernoa, 6.1. fitxa

*Gaur goizean jaiki naiz
umore onean,
tanke bat topatu dut
nire kafesnean.
Ez dakit zer daukagun
bakea ala gerra,
baina nik badaezpada
egin dut puzkerra.*

Furra-furra kanta ezagunaren lehen bertsoa dugu hori. Zortzi lerrotan idatzi dugu bertsoa, ariketako zortzi konpasei dagozkienak direlako, hain juxtu ere. Lerro bakoitzari lan-koadernoko konpas bat dagokio.

Ikasleek, nahi duten bidea hartuz eta nahi dituzten baliabideak erabiliz, desordenaturik dauden zortzi konpas horiek txukun-txukun jarri beharko dituzte, melodia modu egokian osatuz. Adibidez, txirula erabil dezakete konpasak ordenatzen laguntzeko.

Arreta jarritz gero, berehala aurkituko dute lehen konpasa zein den. **Solen** ikurra eta lauko neurria dituen da. Azkeneko konpasa, berriz, melodiaren amaiera adierazten duen marra lodiaz horniturik dago. Hortik aurrera, bakoitzak nahi edo ahal duena egin dezake.

6.2. Txirula jotzen ikasten: *Alpe mendietan*

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Musikako lan-koadernoa, 6.2. fitxa; Jardueren CDa, 28. pista

Bosgarren mailako jardueren CDan ere bazenuten abesti hori, baina orduan, beste helburu batekin aukeratu genuen. Oraingoan, “Txirula jotzen ikasten” atal honetara ekarri dugu.

Nahiko korapilatsua eta bihurria da, batez ere, kantuak “di-ala-dio” esaten duen zatietan. Kortxea ugari daude eta nota batetik besterainoko tartea nahiko zabala da. Hatzek dantza arina egin beharko dute txirula jotzeko garaian. Beraz, gogoratu beharrik ez dago zenbateko garrantzia duen “entrenamenduak” egiteak hatzen malgutasuna lortzeko eta begien-hatzen-haizearen koordinazioa lortzeko. Patxadaz hartu.

Gainerakoan, ohiko prozedurari jarraitzea komeni da.

6.3. Txirula jotzen ikasten: “DO diesea edo sostenitua”

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Musikako lan-koaderno, 6.3. fitxa

Txirula eskuetan dugula, beste nota bat jotzen ikasiko dugu. DO *diesea* edo *sostenitua* da, goiko **do#**.

Beharrezkoa da nota hori nola jotzen den jakitea **re** maior tonalitatean dauden doinuak txirulaz jotzeko, eskala horretako alterazioak **fa#** eta **do#** baitira.

Erabili ohi ditugun gainerako maior tonalitateetan (**do M**, **sol M** edo **fa M**) oso arraroa da nota hori agertzea, baina gerta daiteke.

Nota berri horrekin lehen saiakerak egiten hasteko, lau ariketa prestatu ditugu. Errazak izan arren, gero eta konplexutasun handiagoa dute laugarrenera iristen ari garen neurrian. Errepika-ariketak egitea ere baliabide egokia izan daiteke, non irakasleak eskema labur batzuk proposatuko dituen ikasleek txirulaz errepikatze (entrenamendua).

6.4. Txirula jotzen ikasten: *Neure semeen seme*

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Musikako lan-koaderno, 6.4. fitxa; Jardueren CDa, 29. pista

Ariketak alde batera utzi, eta aurreko orrialdean ikasitakoa praktikan jartzen hasiko gara.

Abestia bi taldek interpretatzeko moldatua dago. Melodiaren lehen zatia, hasierako bi pentagramak osatzen dutena, jolas bat da, non bigarren taldeak lehenengoak jo berria duen konpasa errepikatzen duen. Bigarren zatian, bi taldeek, nahiz eta bakoitzak bere partitura izan, melodia bera izango dute. Zati horretan agertzen da ikasi berri dugun **do** *diesea* edo *sostenitua*.

6.5. Eztabaidan iturri bidean

Lan egiteko era: Talde handian/Banaka/Binaka

Materiala: Musikako lan-koaderno, 6.5. fitxa

Maritxu, nora zoaz, eder galant hori?

Iturrira, Bartolo, nahi baduzu etorri.

Hala nola bukatu den hain modu erromantikoan hasitako elkarrizketa: biak eztabaidan, musika medio. Eta nork ote du arrazoi? Egia esan, batzuetan mutilak eta besteetan neskak. Ikasleek erabaki beharko dute zuzen nor dabilen.

Orain arte ikasitako hainbat kontzeptu erreparatzeko aitzakia bilatu dugu fitxa hau proposatzean.

Bartolok puntu hauetan du arrazoi: 1., 4., 6., 7. eta 10.ean. Lehenengo pentagramako nota aldakarituen kopuruaren antzera. (3 **fa#** eta 2 **si**)

Maritxuk, aldiz, 2., 3., 5., 8. eta 9.ean. Bigarren pentagramako kortxeardien kopuruaren antzera.

6.6. Txirula jotzen ikasten: *Isil-isilik*

Lan egiteko era: TH- gela bi taldetan

Materiala: Musikako lan-koaderno, 6.6. fitxa; Jardueren CDa, 30. pista

Euskal abestirik ezagunenetakoa izango da hori. J. I. Ansorenak ongi dion bezala, “Itsas giroko kanta bada ere, jatorriz eta esanahiz, gaur egun tankera guztietako parrandetan erabiltzen da.” *Euskal Kantak* (Erein, 1993) liburuan dioenez, kantu hau “pupurri” bat da, zenbait abesti biltzen baititu. Guk hartu dugun lehen zatiaren egilea Eibarren jaiotako Fernando Goenaga Iribarren soinu-jotzailea izan zen.

Bi ahots edo talderentzat moldatu dugu partitura. Orain arte ikusitakoaren arabera, talde bakoitzak bere pentagramari jarraitu behar izan dio. Abesti horretan, bi taldeek, pentagrama bera izango dute. Notak bikoteka agertzen dira. Melodia edo ahots nagusia egingo dutenek goialdean agertzen diren notei jarraituko diete eta bigarren ahotsa egingo dutenek, berriz, nota bikoteetako azpialdekoari. Bigarren ahotsa egiteko modu hau *duo riguroso* gisa ezagutzen da. Betidanik egon da mota horretako duoak egiteko joera. Elizako kantetan, adibidez, musika ikasketarik gabeko jendeak mota honetako duoak egin izan ditu *Aita gurea* eta beste hainbat kanta abestean. Belarriak naturalki eskatzen duen zerbait da.

Hasieran nahiko nahaspilatsua suerta daiteke hainbeste nota dituen partitura irakurtzea, baina, arreta jarritz, besteen modura irakurri ahal izango dela uste dugu.

Hala ere, komeni da talde bakoitzak, bakarka, berari dagokionaren irakurketa lasaia eta patxadatsua egitea. Baina ez legoke gaizki aurren-aurrena denek melodia nagusia ikastea ere.

6.7. Letra bila

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Musikako lan-koaderno, 6.7. fitxa

Lasai, ez gara matematika gaietan sartuko, baina bai serieak osatzen.

Lerro bakoitzean, lehen hiru laukietako irudien ordena logikoari jarraituz, azkeneko laukiari dagokiona aukeratu behar dugu eskuinaldeko lerrotik. Eskaintzen diren hiru aukeretatik bat da zuzena.

Erantzun zuzen horiei dagozkien letrekin, musikarekin zerikusia duen hitz bat osatzeko aukera izango dugu.

1. A
2. B
3. O
4. L
5. M
6. E

Argi dago sei letra horiek ordenatuta osa daiteken hitza **BEMOLA** dela.

6.8. Txirula jotzen ikasten: *Azken agurra*

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Musikako lan-koaderno, 6.8. fitxa; Jardueren CDa, 31. pista

Lan-koadernoarekin eta baita lehen hezkuntzako musika ikasketekin ere amaitzeko, kanpalekuetako eta udalekuetako giroko kanta aukeratu dugu. Besarkada eta malko artean abestu dela ikusi izan dugu Estatu Batuetatik iristen zaizkigun filmetan.

Melodiari dagokionez, eta txirula gaietara bueltatuz, **fa M** tonaliterara moldatua dagoela esan behar, hain zuzen ere, modurik erosoena delako. Beheko **do** eta goiko **re** ditu mugak. Eta nahiz eta pentagramaren hasieran abesti horretako **si** guztiek *bemolak* izan behar dutela adierazi, berehala konturatuko gara ez dela **si** bakar bat ere agertzen. Zorte kontua.

Abestiaren letrari dagokionez, bat baino gehiago entzun ditugu, eta zuek ere besteren bat jakitea ez litzateke harritzekoa izango. Hala ere, bat aukeratu behar eta guk hauxe jartzea erabaki dugu.

Lan-koadernotik aparteko abestiak: *Urbiako pottokak*

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Jardueren CDa, 32. pista

Trankatran trostan mendi bidetik,
trankatran trostan garo artean,
trankatran trostan zebilen pottoka.
Trankatran trostan Urbia goitik,
trankatran trostan zelai barnetik,
trankatran trostan gaindituz gogotik.

*Trosta bat, trosta bi, ibil ibiliz,
pottoka gainean mendiz mendi.
Trosta bat, trosta bi, ibil ibiliz,
lurrera jausi naiz zazpi aldiz.*

Harkaitz gainean, zuhaitz artean,
borda bat dauka artzain gazteak,
zaunka ari zait txakur bat atean.
Arkumetxoak kontuz dabilta,
han goitik dator arrano beltza,
ene, pottoka, zatoz, ba, honuntza.

Trosta bat...

Trumoi burrundak, zafrist! tximistak,
ekaitza dator, etxera bizkor!
Trankatran trostan, txintxo eta jator.
Trumoi burrundak, zafrist! tximistak,
ekaitza dator, etxera bizkor!
Trankatran trostan, txintxo eta jator.
Txintxo eta jator.

Kanta giroa suspertzea eta goxo-goxo kantatzea proposatzen dugu.

Lan-koadernotik aparteko abestiak: *Egun on, Belinda*

Lan egiteko era: Talde handian/Binaka/Talde handian

Materiala: Jardueren CDa, 33. pista

A

Egun on, Belinda!

Egun on, Belinda!

Egun on, Belinda!

Dantzara nator.

Egun on, Belinda!

Egun on, Belinda!

Egun on, Belinda!

Zatoz nirekin.

B

Ene gazte, kanta-kantari,

ene maite, dantza-dantzari,

poztu zaitez, zatoz nirekin,

laztandu nahi zaitut.

Ene gazte, kanta-kantari,

ene maite, dantza-dantzari,

poztu zaitez, zatoz nirekin,

laztandu nahi zaitut.

A

Egun on, Belinda!

Egun on, Belinda!

Egun on, Belinda!

Dantzara nator.

Egun on, Belinda!

Egun on, Belinda!

Egun on, Belinda!

Zatoz nirekin.

Ea denak animatzen diren dantza hori egitera. Gu, gure aldetik, saiatuko gara koreografia ahalik eta argien adierazten.

JARRERA

Biribil bat osatuko dugu denon artean, baina, biribila mantenduz, binaka elkarri begira jarriko gara.

MUGIMENDUAK

A

12 beltz eta 2 zuriz osatutako erritmo eskema dugu kantaren azpiegitura erritmikoa.

1 – 2 – 3 – 4	Elkar agurtuz bezala eskuineko eskua emango diogu elkarri.
5 – 6 – 7 – 8	Berdin, baina ezkerreko eskua emanez.
9 – 10 – 11 – 12	Elkarren sorbaldak kolpatu.
13 – 14 – 15 – 16	Elkarri bi musu, aurrena masail batean.

B

Binaka, gauden bezala, elkarri bi eskuak eman eta jirabiraka alde batera eta bestera ibiliko gara musikaren erritmoan (*Ene gazte, kanta-kantari, ene maite, dantza-dantzari, poztu zaituz, zatoz nirekin, laztandu nahi zaituz*).

Jarraian, berdin jirabiraka, baina elkarri gerritik helduta (*Ene gazte, kanta-kantari, ene maite, dantza-dantzari, poztu zaituz, zatoz nirekin, laztandu nahi zaituz*).

INTERLUDIOAN

Katea egin dezakegu. Hasieran, zaila da ondo egitea, baina eginez ikasten omen dira hainbat gauza. Animo!